

...eta  
**K**ittoa!

2020-I-31

1128 zkia.

**IPURUA AUZOKO ELKARGUNEA**

# Sartzeko irrikitan



## Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiaren kirurgia  
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • [www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



**Zezenbide**  
S.COOP.

**EIBAR**

**LASTER  
ERAIKIKO DIRA**



## **BAT, BI eta HIRU LOGELAKO ETXEBIZITZAK KOOPERATIBAN**

euren trasteleku eta  
sukalde ekipatuarekin.

Erdi-erdian, Isasi eta Zezenbide  
kaleetako izkinan. **Untzaga Plazatik**  
metro gutxi batzuetara.

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



**943 20 00 12 / 660 976 156**

[www.zezenbide.com](http://www.zezenbide.com)



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabiak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarte@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Maialen Araolaza

**BANAKETA-ARDURA:**  
Idoia Labado

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTA)**

# eskutitzak

## Iruñeko udalak euskarazko hedabideak publizitate instituzionalik gabe utzi izana salatuz

Iruñeko udal gobernuak euskarazko hedabideek bete ezin duten baldintza ezarri du bere publizitate lizitazioan eta horrela publizitate instituzionala esleitzea helburu duen esparru-akordio berritik at utzi ditu. Hedabideei publizitate instituzionalaren banaketan parte hartu ahal izateko gutxienez audientzia osoaren %10arengana iristea eskatu zaie eta horrek, gaur gaurkoz, euskarazko hedabideen kasuan, beren audientzia potentzial osoarengana iritsi beharra suposatzen du, izan ere, Iruñean euskal hiztunak biztanleria osoaren %10,5 dira. Baldintzetan inolako hizkuntza-irizpiderik ez jasotzeak agerian uzten du Iruñeko udal gobernuak ez duela bertako euskaldunen hizkuntza-eskubideak errespetatzeko inolako asmorik eta, era berean, argi erakusten du erabat arrotz zaiola euskarazko hedabideek euskararen normalizazio prozesuan betetzen duten funtzio garrantzitsuak. Hizkuntza-irizpiderik ez jartzea, hedabide

guztiei gutxienezko audientzia-maila berdina eskatzea edota balorazioan audientziaren gaiari puntu guztien %75 eskaintzea, guztiak ere euskarazko hedabideak lizitaziotik at uzteko trikimailuak izan direla pentsarazten digute. Izan ere, neurri horiei esker, Enrique Maia buru duen udal gobernuak 600.000 euro banatuko ditu aurten 6 hedabidetan udal publizitatea txertatzearen truke, baina diru-multzo horretatik euro bakar bat ere ez da euskarazko hedabideetara bideratuko. Era berean eta bukatzeko, kezka agertu nahi dugu urte hasieran Nafarroako Gobernuak 2020. urteko ikus-entzunezko ekoizpena laguntzeko argitaratu duen dirulaguntza deialdian egin diren aldaketengatik. Kasu honetan ere ez da hizkuntza-irizpiderik ezartzen eta tipologietan edota diru-politsetan egin diren aldaketek ez dute euskarazko hedabideentzat gauza onik iragartzen.

**Hekimen Euskal Hedabideen Elkarte**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MORROILLO.-** Ateak edo leihoak ixteko, alboan izaten duten burdinazko barratxoak. Gaztelarazko 'cerrojo'. "Morroilluagaz itxi bihar dozu atia; aspaldi lapurrak gehitu dira ba".

**MORROILLOPIAN SARTU.-** Giltzapean sartu, preso sartu. "Hori gitxi balitz-edo, morroillopien sartu, gixajua".

## astean esanak

"Kale-garbitzaile gehienak gizonezkoak dira, eta gure lan bera egiteagatik ia bikoitza irabazten dute batzuek. Guri geratzen zaigun lana bulegoetakoa da, eskoletakoa... ezkutatu egiten gaituztela dirudi. Hala ere, zorteduna sentitzen naiz, jardunaldi osoko kontratua dudalako, azpikontratutako enpresa baten bidez. Ez naiz 1.200 euroko soldatara iristen. Hala dabilten askok, gainera, enpresa bateri baino gehiagok emandako lanak onartu behar izaten dituzte, jardunaldia osatu ahal izateko"

(OLAIA BILBAO, GARBITZAILEA)

"Ertzain 'egitea' garai batean ez zegoen edonoren esku. Bideek dute gogoan nola ibili ziren, Urolaldetik Arratiara eta aurreneko promozioetan batez ere, etxez etxe jende bila. Konfiantzako jendea nahi. Gutarrak. Gauzak bestela egiten ziren sasoiko usadioak. Infiltratuen beldurra ere, hor zegoen. 40 urte ondoren, gauzak aldatu egin dira, arean. Orain handia da premia eta, jatorkeriak ahaztuta, sarea zabal bota beste erremedioerik ez dago. 'Egin zaitetz ertzain' horrek antz handiegia du in illo temporeko 'Egin zaitetz apaiz' harena. Irratian, tabernariak ezin dutela bertako langilerik aurkitu barra atzerako"

(IÑIGO ARANBARRI, IDAZLEA)

"Jainkoak igandeetan baizik ez du euskaraz egiten Donostiako bere etxe nagusian. Gainontzeko egunetan Jaingo erdalduna dago bertan. Itxura denez, Jainkoak jaietan baino ez du nahi euskalduna elizaren barruan. Garbi eta alkandora berria jantzita. Hori ulertu liteke Gipuzkoako hiriburuko katedralean mezen informazioa ematen duen kartelari begiratzuz gero. Astelehenerik ostiralera hiru meza ematen dira bertan, erdaraz. Larunbat eta jai bezperetan, bakarra, espainieraz. Igande eta jai egunetan hiru espainieraz, bi elebidunak eta 11:00etan bakarra euskaraz. Ez Erroman, Donostian baizik!"

(JOSE MARI PASTOR, ZUTABEGILEA)

## Sanblasak bedeinkatzeko mezak egingo dira eliza guztietan



Aurten be sanblasak, zinttak eta bestelakuak bedeinkatzeko meza berezixak ospatuko dira San Blas egunian herriko eliza guztietan, baita bezperan be: domekan Azittaiñen egingo dabe mezia, 11:00etan, eta sanblasak ezeze kandelak eta bestelako produktuak be bedeinkatuko dittue. Eta astelehenian, San Blas egunian, lehelengo mezia 08:30xetan izango da, Karmengo Amaren elizan (Karmelitetan); pixkat gerotxuago, 10:30xetan, Urkiko San Jose Obrero elizan ospatuko dabe mezia; 11:00etan, barriz, Karmengo Amaren elizan, San Agustiñen (Estaziño kalian), San Andresen eta San Pio X.a elizan egongo da opillak bedeinkatzeko aukeria; 12:00xetan, Amañako El Salvador elizan izango da mezia; eta arratsaldian, 19:00etan, atzera be mezia ospatuko dabe Karmelitetan.

## AECC-k Gipuzkoako minbizixari buruzko Mintzodromua egingo dau martitzenian

Otsailaren 4a Minbizixaren aurkako Munduko Eguna dala eta, AECC Gipuzkoa Minbizixaren kontrako alkarteak gaixotasunaren inguruan berba egiteko mintzodromua edo alkarrizketa-foroa antolatu dabe. Portalean izango da, 10:30xetan hasitta, eta "World Cafe" modura ezagutzen dan formatua hartuko dabe oiñarri modura: antolatzaile

liak prozesu onkologikua ezagutu daben zein ezagutu ez daben ehunka lagun gonbidatu nahi dittu eta, bosteko taldietan ipiñitta, gaixotasunarekin loturia daken gizartiaren erronken inguruan berba egittia billatzen dabe. Azaldu dabenez, "mahai horretan parte hartuko dabena egin ahal izango dittue.



Horretarako, alkarrizketaren garapena ziheztuko daben gidoi baten laguntasuna eukiko dabe. Dinamika amaittu eta gero, erantzun guztiak jaso eta bateratuko dittugu, aurrerago dokumentu batian jasotzeko eta etorkizunian egitten ditugun ekintzetan kontuan izateko". Jardueria "Minbizia da" izenburuko kanpaiñaren baitan antolatu dabe eta herritar guztieri zabalik dago. Parte hartzeko interesa dakanak aurretik izena emotia eskatu dabe, [www.aecc.es/mintzodromo](http://www.aecc.es/mintzodromo) helbidian, 943 45772 telefono zenbakixan edo [gipuzkoa@aecc.es](mailto:gipuzkoa@aecc.es) helbidera mezua bialduta.

## Gerren kontrako adierazpena onartu dabe

Aurreko asteko martitzenian Udaleko Bozeramaillien Batzordiak gerren kontra eta gatazken konponbide baketsuen inguruan Eibar Gerrarik Ez alkartiak aurkeztutako adierazpen instituzionala onartu eban aho batez. Onartutako adierazpenak jasotzen dabenez, "Eibarren bat egitten dogu gatazka-erabagitze baketsuaren metoduekin eta, aldi berian, dei egitten detsagu mailla guztietako gure ordezkari politikueri (herri, autonomia, estatu, europear eta naziñoarteko) eredu hori jarraitu eta gerraren kontra eta munduko bake eta justiziaren aldeko adierazpen honekin bat egittera".

Naziñoarteko Justiziaren alde. Jakinda bakarrik justiziak ahalbide-tu leikiala errespetuan oiñarritutako bizikidetzeta, naziñoarteko justiziaren mekanismuak indartzia premiñazkua dala adierazten dogu, hola herri, estatu eta herrialdien benetako komunidadia osatzeko, bakiaren ardatzak diran bardintasanian eta errespetuan oiñarrituta". Horrekin batera, arma nuklearrak debekatzeko tratadua siñatzera animatu nahi dittue politikuak.



## 45 urtetik gorako langabetuak preparamen dihardue Debegesan

Udalaren ekimenez, 45 urtetik gorakuendako programia ari dira emoten Debegesan. Asmua langabezixan daguezen lagunak biharra erreago topatzia da eta danera 15 lagunek dihardute parte hartzen. Ekimena laugarren ediziñua bete daben "Esperientzia +45" programari lotuta ipiñi dabe martxan. Lana topatzeko dittuen aukerak gehitzeko, bestiak beste, parte-hartzaillendako erabilgarrixak izan leikiaren ezagutzak emoten detsez, gaitasun pertsonal zein profesionalak eskintziak gain. Urtarrillaren 20xan ekin zetsen programiari eta otsailaren 24an amaittuko da. Behin formaziñua amaittuta, parte hartu dabeneri jarraipena egingo detse, lan-billaketia zelan doian ikusteko.



## Odol-emotaille gitxirekin hasi dabe urtia

Eibarko Odol Emotailien alkartiak urte osorako kalendarixua preparau dau, odola emon nahi dabenedako. Azken aldixan odola emotera juaten diranen kopuruak behera egin dabela eta, alkarteko ordezkariak jendia, "batez be gaztiak" odol-emotaille izatera animau nahi dabe, horretarako hainbat arrazoi dagoazela gogora ekarrita: "Odola emotia oso erreza eta segurua da, ez dau miñik emoten eta profesional espezializauak egitten dabe. Odola emoten dabeneandako ez daka inola-ko arriskurik eta, kontrara, gaixorik dagan jende askori osatzen lagunduko detsa odol horrek. Oin arte behintzat ez dabe lortu odola fabrikatzia eta, hortaz, odola lortzeko modu bakarra jendiak egitten dittuan donaziñuak osatzen dabe. Ospitaletan eta beste toki batzuetan odolaren premiñia dago beti: Euskadin 5 miñutuoro baten batek bihar izaten dau odola, adibide bat ipintziarren".

Eibarren, odola emoteko saiuk Toribio Etxebarria kaleko anbulatorixuan izaten dira, normalian eguen batian bai eta bestian ez, 18:00etatik 20:00etara. 2020rako kalendarixuaren arabera, egun honetan egongo da odola emoteko aukeria: martxuaren 12xan eta 26xan, apirilaren 23an, maiatzaren 14an eta 28xan, ekaiñaren 11n, uztaillaren 9xan eta 23an, irailaren 3an eta 17xan, urriaren 1ian, 15ian eta 29xan, azaruaren 12xan eta 26xan eta abenduaren 10ian.



## Udaberrirako eskintza zabala preparau dau Jabetza Eskoliak

Prest dago Jabetze Eskolaren udaberriko eskintza eta, betiko mar txan, gai desbardiñeri buruzko hainbat ikastaro eta taillar egingo dira: "Mujeres en un mundo en movimiento: mujeres migrando" (martxuak 14 eta 28, 10:30xetatik 13:30xetara Andretxean); "Viaje a tu poder interior: yoga para el empoderamiento" (martxuak 16 eta 23, apirilak 6 eta 27, maiatzak 4, 18 eta 25, ekaiñak 1 eta 15, 17:00etatik 19:00etara Portalean); "Taller de danzas africanas" (martxuak 17, 24 eta 31, apirilak 21 eta 28, maiatzak 5, 12, 19 eta 26, 17:00etatik 19:00etara Portalean); "Dibujando mis emociones en papel y tela" (martxuak 18 eta 25, apirilak 1, 15, 22 eta 29, maiatzak 6 eta 13, 18:00etatik 20:00etara Andretxean); "Feldenkrais: autokontzientzia mugimenduaren bitartez" (apirilak 1, 8, 15 eta 29, maiatzak 6, 13, 20 eta 27, ekaiñak 3, 10 eta 17, 10:00etatik 11:30xetara Portalean); "La violencia hacia las mujeres como arma de guerra" (apirilak 25, 10:00etatik 14:00xetara Andretxean); "Xilografía taillarra" (maiatzak 4, 11, 18 eta 25, ekaiñak 1, 18:00etatik 20:00etara Portalean); eta "Hip Hop taillarra" (maiatzak 7, 17:00etatik 20:00etara Andretxean). Matrikula epia astelehenian zabalduko dabe (otsaillaren 28ra arte). Informaziñua eskatzeko eta matrikula egitteko Andretxeara jua leike, 943700828 telefono zenbakira deittu edo, bestela, Pegoran galdetu.



• **tartak**  
• **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**

CADENA **SER**

**104,0 FM**



**EIBAR** **ELGOIBAR**

**Beilatokia Funeuskadi Eibar:** Otaola, 27

**Beilatokia:** SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

☎ **943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

## Lan barik daguazen andrendako prestakuntza-programia

Udalak arraindegietako biharrari bideratutako prestakuntza-programia ipiñiko dau martxan otsaillaren amaieran, 45 urtetik gorako langabetuendako eta egoera ahulian, arriskuan edo gizarte-bazterketa egoeran daguazen andrendako. Gipuzkoako Merkatarixen Federaziñuak lortu dau proiektu horren inguruko adjudikaziñua eta gitxienez 10 lagunek izango dabe parte hartzeko aukeria. Prestakuntza-plan hori Udaleko Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako udal sailaren beste plan batzueri gehitu bihar jakue eta inbersiñua 24.950 eurokua izango da.

Lanbiden izena emonda daguazen 45 urtetik gorako andra langabetuak eta egoera ahulian, arriskuan edo gizarte-bazterketa egoeran daguazen 20-55 urte bittartekuak izango dabe izena emoteko aukeria, beti be Eibarren erroldatuta badagoz.



Gitxienez 10 lagunek izango dabe parte hartzeko aukeria.

## Udal zerbitzuen karta barrixak argitaratu dittue

Udalak beste hamaika zerbitzuren inguruko informaziñua emoten daben kartak egin dittu, holan 2018xan argitaratu zittuen lau karteri barri honen gehittuta. Karta barrixak honetxek dira: Pegora, Herritarren zerbitzurako bulegoa; Gardentasuna; Diru-bilketa; Udal Zergak; Ego Ibarra; Kultura; Haurreria eta Gazteria; Gizartekintza; Hautaketa Prozesuak; Hirigintza; eta Ingurumena. Horrerri esker, herritarrak Udaleko atal horretan emoten daben zerbitzuen inguruko informaziño guztia modu eroso eta ulerterreziari jaso ahal izango dabe. Kartak euskeraz eta gazteleraz emon dittue argittara eta [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) Eibarko Udalaren web orrixan ipiñi dittue eskuragarri.



## Sanblas lehiaketia Untzagako jubilau etxian

San Blas eguna ospatzeko, Untzagako jubilau etxiak bazkide eta lagunendako sanblas opillen lehiaketia antolatu dau. Parte-hartzaille bakoitzak sanblas bana eruan biharko dau astelehenean, 13:00ian zentruko bulegora, epai-mahaixak probau eta onena aukeratzeko. Irabazliak Baratze jatetxian bi lagunendako bazkarixa jasoko dau sari modura.



**OHARRA**  
 Banaketa-zerrenda berritzen ari gara. Aldizkaria **JASOTZEKO** edo **JASOTZEN JARRAITZEKO** eman izena beheko zerrendan

**eta kitto!**  
 Astekaria

Izen-abizenak

## ...eta kitto! astekariko ETXEZ ETXEKO BANAKETA-ZERRENDA BERRIZTEN ARI GARA

Eibarko etxeetan aldizkaria **JASOTZEKO** edo **JASOTZEN JARRAITZEKO** zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

**IPURUA AUZOA - UBITXA - URKI AUZOA**  
**JUAN GISASOLA**

**[banaketa.etakitto@gmail.com](mailto:banaketa.etakitto@gmail.com)**

## Amarako autobus geralekua ez kentzeko eskatu dabe Diputaziñuan

Oin dala egun batzuk Lurraldebusek iragarri dabenez, bixartik aurrera Donostiako Bizkaia Etorbideko 12. zenbakian dagan Amarako autobus geralekua kenduko dabe eta, horren aurrera, aurreko barixakuan bertan euren kezka agertu eben Eibarko EH Bilduk eta EAJ-PNV-k, DB02 Ermua-Donostia Lurraldebuseko linea eibartar askok erabiltzen dabelako. Bilduko ordezkariak Amarako geralekua ez kentzeko eskaeria erregistratu eben: "Miguel de los Toyos eta Patxi Lejardirengana jo do-

gu, Garraio Agintaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian Amarako geralekua ez kentzeko eskatu deixen. Gaiñera, Ermua eta Elgoibarko Udaleri be eskaera honekin bat egittia eskatu detsagu". Jeltzaliak be bat egin dabe eskaera horrekin eta, gaiñera, Barrena kalian autobusak geralekua izatia be eskatuko dabe.

Gauzak holan, alkatiak Rafaela Romero Gipuzkoako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuari idatzi detsa. Bertan, zerbitzu horreko oin arte Donostiako Bizkaia



pasialekuan, Amara inguruan, eskindu dabe geralekua kentzeko Diputaziñuak hartu daben erabagixak Eibar-Donostia linea erabiltzen daben eibartar askori kezka eragin detsela azaldu dau, eta erabagixa berrikusteko eskatu detsa. Alkatzatik adierazi dabenez, oin

dala egun batzuk Eibarko linea horretako erabiltzaille talde batek bere egoneziña agertu eban Diputaziñuari zuzendutako idatzi batian. Horrekin batera, erabiltzaille batzuk Eibarko Alkatzetara be jo dabe, aittutako neurrixaren inguruko kezka adierazteko.



## Untzaga plazako arboletako bat kendu dabe

Eguazten goizian Udaleko bihargiñak Untzaga plazako arboletako bat bere tokitik etara eben, kalte-tuta egualako. Plazaren inguruan daguazten arboletako bat da gaixotu dana, hain zuzen be izkiñetako bateko lehena. Hori dala eta, makiñekin zuztar eta guzti etara eben arbola eta haren tokixan barri bat sartu dabe.

## Gurasuendako hitzaldixak eskinduko dittue Portalean

Gizartekintza saillak eta herriko guraso alkatiak hitzaldi ziklo barrixa antolatu dabe, "Gurasoak Martxan" programaren barruan. Gurasuendako formaziñua emotiaz gain, seme-alabekin daken komunikaziñuaren gaiñian gogeta pizteko asmuarekin egitten diran saiuk Portalean, areto nagusixan egingo dittue: otsaillaren 19xan "Bullying: zer dan eta zer ez dan" izenburuari jarraituko detse eta 26xan, barriz, drogen inguruan jardungo dabe berbetan, "Zer egin lehen kontsumuen aurrera" izenekuan. Egun bixetan 18:00etan hasi eta 19:30xetan amaittuko dira saiuk eta hitzaldixak Hazkunderdek emongo dittu. Batian zein bestian parte hartzeko derrigorrezkua da izena emotia, Gizartekintzan bertan edo, bestela, seme-alaben ikastetxeko Guraso Alkartiaren bitartez.



w w w . a l d a t z e . e u s

aldatze



**IX. ALDATZE  
DENOK GARA**  
otsaillaren 1ean  
11.00etan



# Eibarren *pura vida*

**C**osta Rican sarri erabiltzen den esaldia da *pura vida*. Agurtzeko, dena ondo dagoela adierazteko edo ondo zauden galdetzeko, costarricarren bizitzeko filosofia laburtzen du. Ana Dodero Costa Rican jaio zen, Turrialban. Izen bereko sumendiak zaintzen du herria eta azken aldian sumendira begira jarri dira herritarrak. *“Urte askoan lo egon zen, kraterrean egon izan naiz txikitán, baina 2014an erupzioa egin zuen eta kea dario ordutik”*. Sumendiak turismoa erakartzen du eta garrantzitsua da ekonomia-aren aldetik, baina azukre-kanaberaren industria da nagusi han. *“Gainera, AEBko Beisbol Liga Handietan erabiltzen diren pilotak ere han egiten dira, nire etxe alboan dagoen Rawlings lantegian”*.

## Orduak eta orduak kalean

Costa Ricako klima tropikala da, eta eguraldia nahiko aldakorra bada ere, ez diote jaramon handirik egiten eguraldiaren iragarpenari. *“Euria edo eguzkia egin, bero egiten du orokorrean”*. Klima atsegina dute umeeak kalean orduak pasatzeko. *“Hautzaroko oroitzapen zoragarriak ditut. Iluntzera arte jolasten nuen lagunekin ezkutaketetara, tortolosean, bizikletan, kulunkan... zikin-zikin egin da itzultzen ginen etxera”*. Aitxitzak lursail bat zuen eta Anak han landatzen zutena saltzen zuen bost urterekin. *“Tomateak, lekak... hartu eta auzokoei saltzen nizkien”, gogoratzen du barrez. “Ama-ri dirua ez eskatzeko egiten nuen, gero gozokiak erosteko”*.

## Ozeano Baretik Eibarrera

Ozeano Bareak eta Karibe itsasoak bustitzen dute Costa Rica eta hondartzak aukeran dituzte. *“Zoragarriak gainera”*. Itsasertzean ezagutu zuen gaur egun bere senarra dena, *“Amerikan zehar bidaiatzen zebilen eibartar bat”*. Handik gutxira Eibarrera etorri zen bisitan eta polita iruditu zitzaion. *“Asko harritu ninduen kalean dagoen bizitzak. Lana egiteaz gain, bizitzaz gozatzeko gogoa du jendeak. Costa Rican, ordea, etxeetan biltzen gara batez ere eta erlaxatuago bizi gara”*. *Pura vida* bizimodua, familia, lagunak eta lana utzi eta Eibarrera etorri zen bizitzera orain dela sei urte, beste eibartar bat bihurtu arte. *“Costa Ricako jatorria duen baka-rra, erroldak dioenez”*.

## Mae

Ana berehala moldatu zen Eibarko bizimodura. *“Familia eta lagun zoragarriak aurkitu ditut hemen eta erraz moldatu nintzen. Zorte handia izan dut”*. Mae deitzen diote eta pozik hartu du ezizen hori. *“Gazteleraz ‘tío’ edo ingelesez ‘dude’ bezala erabiltzen dugu mae*



*Familia eta lagun eibartarren artean pozik bizi da Ana. Ekhi Belar*

*Costa Rican”*. Bere herrialdean esamolde eta berba ezberdinak erabiltzen badira ere, gazteleraz egiten duenez ez du arazorik izan hizkuntza aldetik, baina zer moduz euskerarekin? *“Gauza asko ulertzen ditut eta gehiago ikasten saiatzen naiz, baina zorretan nago euskerarekin. Ingurukoek euskeraz egiten dute eta asko ikasten dut horrela. Ez dezatela gazteleraz egin ni eurekin nagoelako”*. Gainera, arbaso euskaldunak izan ditzakela dio. *“Nire bigarren abizena Garita delako”*.

## Costa Ricako kafea

Milaka kilometrotara bizi den familiaren falta asko igartzen du, *“eta momentu zailak pasatzen ditut”*. Hala ere, Costa Rica hurbil sentitzen saiatzen da ahal den heinean. *“Costa Ricako kafea estilo tradizionalen hartzen dut egunero eta kozinatzea gustatzen zaidanez, hango jakiak prestatzen ditut sarritan”*. Gabonetan, hango ohiturari jarraituz, txerri-hanka egiten du, eta Costa Ricako musika taldeak entzuten ditu. *“Talentu handiko jendea dago. Coco funka, adibidez”*. Gainera, hango lagunak biziak jaso izan ditu eta Eibar asko gustatu zaiela dio. *“Batzuk behin baino gehiagotan etorri dira. Hori bai, etortzen denak Costa Ricako kafea ekarri behar du”*.

**“Suave un toque”**

**“Lasai egon,  
itxaron pixka bat”**



# IX. IKASENPRESA AZOKA



**Otsailak 6**  
**10:00/13:00**  
**Untzaga Plaza**

 #feriaikasenpresa @ekingune



**ikasenpresa**  
Gaitasunak lantzen  
Trabajando capacidades

LANBIDE HEZIKETAKO  
**ikasleek**  
**sortutako**  
produktu eta zerbitzuak!



**ekingune**  
Emprendimiento en Formación Profesional  
EkinZailetze Lanbide Heziketan



**Tknika**  
Ikerketa Zentroa Euskadiko LHn  
Centro de Investigación en FP Euskadi  
Basque VET Research Centre

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Vicesecretaría de Formación Profesional



## Eibarko La Salle



### Imajinatu!

Matrikula zabalik: Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

943202133-943121698  
[www.lasalleeibar.com](http://www.lasalleeibar.com)



2 urtetik 16 urtera

Ipuruako Merkatu Plaza auzoko elkargune bihurtuko da. Eibarko Udalak, apirilaren amaieran egindako udalbatzan, aho batez onartu zuen auzotar talde batek aurkeztutako egitasmoa, eta orain eraikina zertarako eta nola erabiliko den zehazteko unea da. Horretarako parte-hartze prozesua hastera doa: datorren otsailaren 5ean, eguaztena, izango da lehen bilera irekia eta, bertan, herritar guztiek ahotsa izango dute. "Ipuruako merkatu plazaren birgaitzea" auzotarrek pentsatu eta bultzatutako proiektu intergenerazionala, anitza eta irekia da.

# IPURUA AUZOKO ELKARGUNEA

## Herritarrok herritarrontzat pentsatua

**A**uzotarrek eta udalak deia egin dute eguaztenean, otsailaren 5ean, 18:00etatik aurrera Ipuruako merkatuaren eraikinean bertan egingo den bileran parte hartzeko. Gaur egun hutsik dagoen eraikin horrek potentzialitate handia daukala uste dute auzotarrek, eta horregatik indarrak batu eta eraikinari erabilera desberdinak emateko proposamenak entzun eta aztertuko dira.

"Ipuruako merkatu plaza: Auzoko gunea" auzotarren ekimenez sortutako proiektua da, "herritarrok herritarrontzako" pentsatutakoa. Horretan jardun dute, besteak beste, Nerea Mendikutek eta Maialen Araolazak. "Erabilera anitza eta intergenerazionala oso aberasgarria dela uste dugu; horregatik Ipuruako merkatua izandakorako adin eta funtzio desberdinak biltzen dituen zentru edo elkargune bat proposatzen dugu. Txosten bat aurkeztu genuen udaletxean, merkatu plazaren eraikina dituen aukerak eta bertan egin daitezkeen jarduerak azalduz. Udalak bat egin du ideiarekin eta herritarrek erabaki horretan ahotsa izan dezaten nahi du. Horretarako prozesu parte-hartzailea ireki da".

Auzotarrentzako topagune eta aisialdi hezitzaileko gune bizia sortu nahi dute denon artean. Horretarako hiru saio egingo dira; lehenengo bilera irekian espazioak eta erabilerak zehaztuko dira, hau da, jendeak zer nahi duen eta zein erabilera aurreikusten dituen. Hurrengo bietan antolaketaz eta kudeaketaz jardungo dute. Horrez gain, zentroaren filosofia edo balioak ere zehaztu beharko dira: "Beste leku ba-



Auzoko elkargunea auzotar guztientzako egongo da zabalik. Espazio intergenerazionala, anitza eta irekia nahi dute. Argazkian, Maialen Araolaza eta Nerea Mendikute.

tzuetako esperientziak ikusten egon gara eta asko gustatu zaigu Gernikako Astraren eredia, dauzkan balioengatik, izan duen bilakaeragatik eta, batez ere, emaitzak oso aberasgarriak direlako".

### Parte-hartzearen garrantzia

Prozesuan eta eguaztenean egingo den bileran jendearen parte-hartzea ezinbestekoa dela diote Maialenek eta Nereak. "Orain da gauzak egiteko momentua, eta denon atean egiten badugu aberatsagoa eta emankorragoa izango da, zalantza barik. Proiektu anbiziosoa da, baina emaitza aberasgarriak eskaintzen dituena. Guk

egin duguna lehen bultzada ematea izan da, eta hemendik aurrera ikusiko dugu zer geratzen den. Baikorrek gara, oso proiektu polita dela iruditzen zaigulako eta jendeak babes eman nahiko diola uste dugu (babes hori argi ikusi zen egin genituen 400 inkestetan)".

### Potentzial handia

Belaunaldi arteko espazioa, anitza eta irekia nahi dute. "Jendeari ikusarazi nahi diogu aukera handiak dituela, potentzial handia daukala. Saio ireki hauekin benetako parte-hartzea nahi dugu, hau da, jendeak bere ideiak eta proposamenak lasai azaltzeko lekua izan behar du. Egitasmoaren ezaugarri garrantzitsua da behetik go-ra egin dela, eta izaera hori ez dugu galdu nahi", adierazi dute. Beraz, herritarrei animatzeko eta bilerara joateko eskatu nahi

Lehenengo bilera irekian espazioak eta erabilerak zehaztuko dira, eta hurrengo bietan antolaketaz eta kudeaketaz jardungo dute.

“Eraikinak aukera ugari ditu eta denak mahai gainean jarri nahi ditugu”

diete. Bileran edozeinek har dezake parte, eta haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da Jazinto Olabeko ludotekan.

Hurrengo bilerak martxoan eta apirilean egingo dira eta orduan zehaztu beharko da gestioa. Hiru aukera daude mahai gainean: autokudeaketa, Udalak kudeatzea edo eredu mixtoa. Nerea eta Maialenen ustez, “*bien arteko kudeaketa interesgarria izan daiteke, baina guk nahiago dugu autogestionatua izatea*”.

Araolazak eta Mendikutek landutako txostenaren arabera, beheko solairuan taberna eta bertoko nekazaritza produktuen salguneak egotea gustatuko litzaieke, eta lehenengo solairuan egitura mantenduko litzateke: “*Perimetroan gela txikiak daude eta erdian espazio handi bat dago. Haur eta helduentzako era askotako jarduerak egin daitezke: bilerak, jolas-guneak, tailerrak, ipuin kontaketak, liburutegia, erakusketak, hitzaldiak... Antzerkirako eszenatoki txiki bat muntatu daiteke eta kontzer-*



*Aukera guztiak mahai gainean jarriko dira, eta denon artean erabakiko da eraikinaren erabilera. Proiektua egiteko beste herrietako ereduak aztertu dituzte.*

*tuetarako gune egokia ere izan daiteke. Jubilatuek ere hor izan dezakete euren txokoa goizean egunkaria lasai irakurtzeko. Eta haurrentzako neguan gustora egoteko lekua izan daiteke. Azken batean, herritarrek herritarrentzako proposatutakoak dira. Aukera guztiak mahai gainean jarri nahi ditugu, eta gero joango gara ikusten, ditugun baliabideen arabera”.*

Eraikuntzak daukan balio historiko eta arkitektonikoaz gain, “*badago beste gauza*

*bat azpimarratu nahi duguna: atea zabaldu eta berdegunea daukan eraikin publiko bakarra da Eibarren. Espazio berdea pegatuta dauka eta horrek aukera asko ematen ditu, gehienbat udan kanpoan egin daitezkeen gauzei begira”. Buruan daukaten beste balioa jasangarritasun energetikoarena da. “Hau eredu bat izatea gustatuko litzaiguke. Ondo isolatuta, kontsumo energetiko baxuarekin, eta behar den energia bertan ekoiztea gustatuko litzaiguke”.*

1950eko urtarrilean, Eibarren zegoen etxebizitza-arazo larria zela eta, lursailak erosteko erabakia hartu zuen Eibarko Udalak, eta “*Obra Sindical del Hogar*” delakoari laga zizkion, erakunde horrek, Carlos Larrañaga Taldearen ereduari jarraituz, etxebizitza babestuen multzo bat egin zezan, eta baita, zerbitzu osagarri gisa, Merkatu Plaza, eskola, eta komentu-eliza ere. Bi urte geroago, 1952ko otsailaren 21ean, erabaki hori bertan behera utzi zuten, eta Udalak berak hartu zuen enkante bidez obra horiek egiteko ardura. Joaquin Dominguez Elosegui ingeniariari proiektua idazteko ahalmena eman zion.

**Eraikinari buruz udal-artxibotik jasotako deskripzioak horrela dio:**

- Beheko solairuan, 305,60m<sup>2</sup> proposatzen ditu.

*Lur gorabehera dela eta, hego-ekialdeko partea geratzen da erdi-lurperatuta. Iparra partean, 46,40m<sup>2</sup>-ko atondo bat, lau arraindegi, 15,68m<sup>2</sup>-tako biltegi bat, eta lehen solairura eramaten gaituen eskailera.*

- Lehenengo solairuan, 325 m<sup>2</sup>. Sarrera nagusia mendebaletik eskailera zentral handi batekin eta alde bakoitzera ate bana. Areto nagusian, erdian, kokatzen ditu baserritarrak, barazki, esne eta lora salmentarako. Horiek inguratuz daude laborategiak, haragi eta hegazti salmenta postuak, komunak eta beheko solairura jaisteko eskailera.



Eibarko Udal artxiboko argazkiak, 1960. urtearen inguruan.


Eguazten goizean aurkeztu zituzten 43. Eibarko Antzerki Jardunaldiak udaletxean Miguel de los Toyos alkateak, Jose Angel Maria Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak, Maria Jose Telleria Foru Aldundiko Kultura zuzendariak eta Erika Rodriguez eta Ricardo Martin Narruzko Zezen antzerki taldeko ordezkariak. Otsailaren 26an hasi eta apirilaren 2ra arte garatuko da Eibarko Antzerki Jardunaldien 43. edizioa, Coliseo antzokian eta Hezkuntza Esparruko aretoan. Hala ere, sarreraren aurrealmena asteburu honetan hasiko da: nahi duenak bihar, etzi eta etzidamu izango du sarrerak erosteko aukera, 10:00etatik 14:00etara, Coliseo antzokian, baita internet bitartez ere.



## Aurkeztu dituzte 43. Eibarko ANTZERKI JARDUNALDIAK

**E**dizio honek 180.000 eurotik gorako aurrekontua izango du eta, prestatu duten egitarauari begira, 20 konpainiak jardungo dute taula gainean, 22 emankizun eskaintzen: horietako 20 antzerki emanaldiak izango dira eta, horrez gain, kaleko antzerki ikuskizun bat eta Jardunaldiak zabaltzeko ohiko hitzaldi-solasaldia bildu dituzte. Azken hori emateko ardurua Lolita Flores musikari eta antzezleak izango du oraingoan. "Actrices de raza" izenburuari jarraituta, artista ezagunak bere lanari buruz egingo du berba, baita artista familia bateko kide izatearen inguruan ere. Bera ez da izango aurtengo programan aurkituko dugun izen ezagun bakarra, ezta gutxiago ere: Imanol Arias, Adriana Ozores, Luis Piedrahita eta beste hainbat pertsonaia ezagun ekarriko dizkigute Jardunaldiek. Eta, horiekin batera, pisu handiko beste izen bat badago: Jardunaldien historian berebiziko garrantzia izan duen Juan Ortega omenduko dute.

Aurkezpenean esandakoaren arabera, betiko martxan, "une honetan antzerkigintzan dagoen onena erakusteko eskaparate bikaina" da egitaraua. Otsailaren 26an hasiko da egitaraua, Lolita Flores aktorea protagonista duen solasaldiarekin. Lorea Arakistain kazetari eibartarrak aurkeztuko duen ekitaldia Coliseo antzokian izango da,



19:00etan, eta sarrera doan izango da. Ondoren, otsailaren 27an eta 28an, Coliseoko taula gainera igoko da Lolita, Magüi Mirak zuzendu eta bertsionatutako "La fuerza del amor" obra interpretatzeko. Berarekin batera beste aktore ezagun batzuk, Luis Mottola, Antonio Hortelano eta Marta Guerras egongo dira. Bi egunetan, 20:30ean hasiko da antzezlan eta, esan dutenez, "aurtengo Jardunaldietako komedia nabarmenetako bat izango da".

Hurrengo egunean, otsailaren 29an, "Full House" kaleko antzerki ikuskizuna aurkeztuko dute Bartzelonako eta Austria-

ko Electrico 28 antzerki taldekoek Untzagan, 18:00etatik aurrera. Hortik aurrera, "era guztietako gaiak lantzen dituzten lanak" taularatuko dituzte.

### Eibartarren parte-hartze handia

Aipamen berezia egin zioten familia osoarentzat pentsatutako antzerkiari: "Egitarauan familia osoarentzat egokiak diren bost lan daude eta horiek ikustera joateko animatu nahi dugu jende guztia". Eibar eta inguruko herrietako aktoreek ere aparteko tokia betetzen dutela azpimarratu dute: "Egitaraua begiratzen hasiz gero, eibartar asko agertzen dira: Nerea Gorritik, Irene Hernando, Jokin Oregi, Imanol Arias... Eta, horrez gain, egitaraua itxiko duen La Red Teatro taldekoak eta lanetako batean parte hartuko duen Cielito Eibarko Musika Bandako musikariak ere arituko dira. Bestalde, kartela beste eibartar batek, Iñaki Larrañaga artistak egin du".

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordearen berbetan, "Eibarko Jardunaldiak beterranoetakoak dira eta garrantzi handia daukate. Dauden tokian egoteko ezin da ahaztu atzetik urte askotako lana eta aha-legina daudela. Gainera sasoi berrietara egokitzen eta gazteak erakartzen jakin dute. Bestalde, herritarrek antzerkiarekiko

## EGITARAUA

### OTSAILEAN

26 (eguztana)	19:00	"Actrices de raza" hitzaldi-solasaldia, Lolita Floresekin		Coliseoan
27 (eguztana)	20:30	"La fuerza del cariño" (Pentación, Madril)	90 minutu	15 euro Coliseoan
28 (barixakua)	20:30	"La fuerza del cariño" (Pentación, Madril)	90 minutu	15 euro Coliseoan
29 (zapatua)	20:30	"Full House" (Eléctrico 28, Bartzelona/Austria)	50 minutu	Untzaga Plaza

### MARTXOAN

1 (domeka)	20:30	"Curva España" (Chévere, A Coruña)	80 minutu	12 euro Hezkuntza Esparruan
<b>4 (eguztana)</b>	<b>20:30</b>	<b>"Ni, munduko txarrena" (Vaivén, Gipuzkoa)</b>	105 minutu	12 euro Coliseoan
5 (eguztana)	20:30	"Yo, la peor del mundo" (Vaivén, Gipuzkoa)	105 minutu	12 euro Coliseoan
<b>7 (zapatua)</b>	<b>17:00</b>	<b>"Ikimilikiliklik" (Marie de Jongh, Bizkaia)</b>	50 minutu	5 euro Coliseoan
11 (eguztana)	20:30	"El rey Lear" (Atalaya, Sevilla)	105 minutu	12 euro Coliseoan
13 (barixakua)	20:30	"Orquesta de malabares" (Pistacatro, A Coruña)	75 minutu	5 euro Coliseoan
15 (domeka)	20:30	"Los hijos" (Prod. Teatr. Contemp., Madril)	100 minutu	15 euro Coliseoan
16 (astelehena)	20:30	"La isla" (Histrión Teatro, Granada)	70 minutu	12 euro Hezkuntza Esparruan
<b>17 (martitzena)</b>	<b>20:30</b>	<b>"Zaldi urdina" (Axut!, Artedrama, Dejabu)</b>	90 minutu	12 euro Coliseoan
19 (eguztana)	20:30	"Imperator" (Maricastaña, Ourense)	75 minutu	5 euro Hezkuntza Esparruan
20 (barixakua)	20:30	"El coronel no tiene quien le escriba" (Okapi, Madril)	80 minutu	15 euro Coliseoan
21 (zapatua)	20:30	"Around the world" (Brodas Bros, Bartzelona)	75 minutu	5 euro Coliseoan
22 (domeka)	20:30	"Es mi palabra contra la mía" (Luis Piedrahita, Madril)	80 minutu	15 euro Hezkuntza Esparruan
24 (martitzena)	20:30	"Rámper, un payaso" (Cancamisaa, Bizkaia)	70 minutu	12 euro Hezkuntza Esparruan
25 (eguztana)	20:30	"Lloviendo ranas" (Ados eta Acrónica)	75 minutu	12 euro Coliseoan
27 (barixakua)	20:30	"Surco" (Kokreta, Gipuzkoa/Argentina)	60 minutu	12 euro Coliseoan
29 (domeka)	20:30	"El violinista Rebelde" (Rebelde Strad, Madril)	75 minutu	5 euro Coliseoan
<b>31 (martitzena)</b>	<b>20:30</b>	<b>"Simplicissimus" (Tartean, Bizkaia)</b>	60 minutu	12 euro Coliseoan

### APIRILEAN

2 (eguztana)	20:30	"Los olivos pálidos" (La Red Teatro, Gipuzkoa)	75 minutu	5 euro Coliseoan
--------------	-------	--	-----------	------------------

### SARREREN ALDEZ AURREKO SALMENTA

- Otsailaren 1ean, 2an eta 3an, 10:00etatik 14:00etara, Coliseo antzokian.
- Emanaldi bakoitza baino ordu bate lehenago, dagokion antzokiko leihatilan.
- Kutxabanken bidez, 2020ko otsailaren 1etik (10:00etatik) aurrera.
- Otsailaren 3tik aurrera, **astelehen eta barixakuetan**, 17:30etik 19:30era, Coliseo antzokian.

### SALMENTA ARRUNTA

Dagokion antzokiko leihatilan, emanaldi bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago.



Vaivén-ek bi saio eskainiko ditu, martxoaren 4an eta 5ean. Lolita Floresekin hasiko dira Jardunaldiak.

duten maitasun hori galdu ezin daitekeen altxorra da. Programa benetan zabala da eta bertan klasikoak eta berriak, izen ezagunak eta ezezagunak... batzen dira. Eta horren guztiaren barruan, euskal taldeak eta euskera bera naturaltasunez sartzen asmatu dute".

Aurten, berrikuntza modura, Jardunaldiak ezagutzera emateko hiru ekimen berezi antolatu dituzte: hasteko, hainbat eibartar ezagunekin bideo batzuk grabatu dituzte (Juan Ortega, Mateo Guilabert, Nerea Gorriti, Irene Hernando, Kezka dantza taldea, Eibarko Musika Banda, La Red Te-

atro, Coliseoko teknikariak, Narruzko Zeren taldekoak eta Eibarko Koro Gaztea), jendea antzerkira joatera gonbidatzen, eta otsailean zehar horiek zabaltzen joango dira, "ondoren jendeak sare sozialetan partekatuko". Horrekin batera, Donostira doazen autobusen pantailetan publizitatea azalduko da eta Bilbora doazen autobusetako batean, berriz, kartelaren irudia ipini dute. Eta, amaitzeko, asteburu honetan sarreraren aurre-salmenta hasiko dela-eta, hori iragartzeko eta Jardunaldien berri emateko Lekim taldeko aktoreak ibiliko dira herriko kaleetan.



Martxoaren 20an, Imanol Ariasen lanarekin batera, omenduko dute Juan Ortega.

**Leire Garcia Navarro (idazlea):**

## “Modan ez badago ere, irakurtzeaz eta idazteaz asko gozatzen dut”

15 urte ditu bakarrik. Hala ere, idazteko beharra sentitu izan du txikitatik. Egindakoa erakustera animatuen arte. Eta argitaratu diote. Abenduaren 25etik kalean dago “Toda la sangre que he llorado”, Leire Garcia Navarrok idatzia. Círculo Rojo editorialaren eskutik, autoedizio formatuan. Aldatzen ikasten du eta badaki bere zaletasuna gelako gutxik konpartitzen dutela. Hala ere, izan dira inguruan asko lagundu diotenak. Jakina, irakurtzea ere gustoko du eta, “*momentuz behintzat*”, bide horretatik jotzeko asmoa du.

**- Liburu hau kaleratu aurretik ere idatziko zenuen, argi dago. Noiztik heldu diozu serio?**

Betidanik izan dut irakurtzeko eta idazteko zaletasuna. Hala ere, bi urte pasatxo izango dira aisialdia aprobetxatzeko eta hobby moduan jardun horretan hasi nintzela. Serioago esateko, urte eta erdi inguru hasi nintzela.

**- Egunero idazten duzu, akaso?**

Egunero, ohitura moduan, ez. Badira egun batzuk tamainan idazten dudala, baina beste batzuetan ez dut ezer idazten. Ez dut obligaziotzat hartzen; momentuak aprobetxatzen ditut.

**- Zaletasuna nondik datorkizu? Eskolan bultzatu zaituzte horretara?**

Idaztea eta musika, horiek pasioa izan dira niretzat. Txikitatik. Eskolan Lengoaia klasean poesia landu izan dugu eta horrek lagundu dit. Euskerazko andereñoak ere lagun izan ditut, Lengoaia eta Erljio klaseetan.

**- Hala ere, liburua gazteleraz idatzi duzu? Zergatik?**

Hobeto moldatzen naizelako, naturalago irtetzen zait-eta. Etxean ez dut euskaraz hitz egiten, gurasoek ez dakitelako. Eta irakurri ere, gehiago irakurri izan dut gazteleraz.

**- Ingurukoek zer esan dizute? Gustatu zaie liburua? Irakurri dute?**



Aitak badakit ez duela irakurri; amak orrialde batzuk, besterik ez. Eta gelakoak harrিতa geratu dira, ez daude horrelakotara ohituta. Eurekin egunero egonda ere, ez zuten horrelakorik espero.

**- Aurretik antzerakorik idatzi duzu? Ahalagindu zara?**

Batez ere, poesia egin dut eta istorioak ere idatzi ditut; baina infantilagoak, tipikoagoak akaso. Jakina, publikatu barik.

**- Eta zabalduzako bide honetatik jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, ez diot lagako idazteari. Zaletasun hau ez dut uste egun batetik bestera baztertuko dudarik. Bitartean, egurra!

**- Bestelako zaletasunik?**

Bai. Txikitatik gustatu zait dantzan egitea eta abestea. Baina badakit horretan ez naizela trebea, nire mugak ditudala. Hala ere, gitarrarekin saiatu naiz, gero pianoarekin ere. Eta antzeztea asko gustatzen zait, klasean-eta jardun izan dut.

**- Irakurtzerakoan, non aurkitzen duzu iturria?**

Udako oporretan-eta, irakasle batek hainbat liburu pasatzen dizkit irakurtzeko. Bestalde, Jordi Sierra i Fabrerren lanak ditut gustoko, batez ere: lantzen dituen tematikak, erabiltzen duen estiloa...

**- Zelan aurkeztuko zenuke zure liburua?**

Erlazio pozoitsu baten ingurukoak azaldu nahi izan ditut liburuan. Lau fasetan banatu daiteke eta hainbat etapa pasatuko ditu pertsonaiak: zelan dagoen erlazioaren barruan, nola irten behar duen bertatik, ez dakienean harreman sanoa ez dela, gero ondo bidean aurkitzen dela...

**- Eta, nagusitzean zer? Ikasketak nondik bideratuko dituzu?**

Batxilergoan Giza Zientzien bidetik joko dut. Gero, badut asmoa Malagan eskaintzen duten Arte Eszenikoak ikasteko. Filologiaren bidea aukeratzeko ere animatu naute. Oraindik badut astia erabakitzeko.



## FELIX GANDIAGA ARTETXE

III. URTEURRENA (2017-I-29)

**“Bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko”**

ETXEKOEK



## Datorren egunean egingo da IX. Ikasenpresa Azoka



**E**uskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikasleek sortutako zerbitzuak eta produktuak ezagutzera emateko asmoz egiten den Ikasenpresa Azokaren 9. edizioa datorren astean, egunean egingo da, 10:00etatik 13:00era bitartean, Untzagan eta Txaltxa Zelaian asmo horrekin ipiniko dituzten karpetan. Teknikak antolatzen du Ikasenpresa Azoka, Eibarko Udalaren eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutuaren laguntzarekin.

Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea bultzatzeko asmoarekin garatzen den heziketa proiektua da Ikasenpresa, eta horren harira antolatzen dute urtero azoka. Arduradunen berbetan, *"Ikasenpresa programa ikasgeletan eskola-enpresak sortzearen inguruan garatzen den hezkuntza-programa bat da. Proiektu horren helburuen artean dago enpresaren mundua ikasgeletara hurbiltzea eta gaitasun ekintzaileen garapena sustatzea (sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak*

*hartzea, ekimena, lidergoa, konpromisoa, irmotasuna, negoziazioa, eta abar). Gainera, beste kultura eta gizarte-errealitate batzuetara hurbildu nahi da ikaslea eta ikas-tetxeen arteko elkarlana sustatu nahi da".*



*lazo parte-hartzearen parekoa (2.000 ikasle) espero dute aurtengo edizioan.*

Horretarako ikasleek enpresa txiki bat muntatzen dute ikasgelan, benetan enpresa bat martxan ipini ahal izateko eman behar diren pauso guztiak emanez: irudi korporatiboa, administrazioa, marketina, salerosketa eta beste arlo guztiak lantzen dituzte klasean eta eskainiko dituzten produktuak errealak izango dira, beraiek egingakoak edo merkaturatutakoak.

Hain zuzen ere, ikasleei produktu horiek saltzeko aukera ematen die urtero otsailean Eibarren egiten den azokak. Aurreko edizioetan EAE osotik etorritako Lanbide Heziketako 2.000 ikasle inguruk hartu du parte Ikasenpresa Azokan eta aurtengoa ere antzerako parte-hartzea izango du topaketak.

Bestalde, eta azken urteotako biderei jarraituz, ikasleek aurkeztuko dituztenen artean aniztasuna izango da nagusi: *"Lanbide Heziketaren barruan familia-profesional ugari daude eta, beraz, azokan denetarik ikusi ahal izango da: osasun arloari lotutakoak, kimikaren ingurukoak, arotzeria, merkataritza, ileapaindegi eta estetika arlokoak..."*



## M<sup>a</sup> ANGELES ARRIZABALAGA BILBAO

I. URTEURRENA: 2019-I-29

**"ZURE HUTSUNEA EZIN DA BETE.  
GURE OROIMENEAN ZAITUGU,  
AMATXO LAZTANA!"**

ETXEKOAK



*ekhi belar*

## Argi ibili

**Edozein gauza egiteko esfortzu gutxien eskatzen duen bidea hartzen saiatzen naiz beti**, baina batzuetan zaila izaten da bide hori aukeratzea. Eroskiko ilara azkarrena aukeratzea bezala da, inoiz ez duzu asmatzen.

Alperra izateak burua martxan jartzen du eta, era berean, ezer ez egiteak esfortzu handia eskatzen du. Estimulu berrien beharra dugu etengabe. Monotoniaren beldur, eragingo gaituzten pilulak irentsi behar ditugu momentu oro. Bata bestearen atzetik. Eguneko agenda ekintzaz betetzen dugu, eta mugikorra eramaten dugu komunera, bakardadean egoteko genuen momentu bakarra inbadituz.

Buruko zurrunbiloa etengabeko martxan dago eta denetik jakin behar dugu. Gaur koronabirusa, bihar klima-aldaketa eta etzi Irango kanpo-politika. Sasi orojakitun bihurtu arte. Hala-nolako pare bat datu jaso, bola bat egin, murtxikatu gabe irentsi eta jasotakoa plazan bota.

Estimulu berrien beharra dugu etengabe. Monotoniaren beldur eragingo gaituzten pilulak irentsi behar ditugu momentu oro. Bata bestearen atzetik.

Hausnartzeko denbora, gogo edo aukerarik gabe, ezin Tolosa-koak imitatu. Pote Filosofikoak ekimena jarri dute martxan han eta filosofia kontuez dihardute tabernetan. Absenta txupito bat, mesedez.

Hain zuzen ere, filosofiaz, alpinismoaz eta buruan bueltaka eduki eta ezin azaldu nituen gauzez mintzatu da Pedro Batalla Cueto El Salto webgunean egin dioten elkarrizketa interesgarrian. Marka pertsonalen, muturreko kirol-proben eta edozelako lehien sasoiari, ibiltzea gomendatzen du berak. *“Oinez egiteak pentsamenduari mesede egiten dio”*, bere ustez, eta kontenplaziozko-mendizaletasunaren alde egiten du. Mugikorra itzali,erlojua erantzi, nagikeria uxatu eta kasu egingo diot. Hausnartu, pentsatu eta inguruko mendiak berrikusteko gogoia dut, zuhaitz mozketa masiboen ondoren beste toki batean bizi naitzela dirudielako.

*arantza alvarez*

## Hezkuntza afektibo-sexuala eta “gurasoen-pina”

**Oraindik ere, 2020an, geletan hezkuntza afektibo-sexualaren beharra defendatzeak** tristura, egonezina, urduritasuna, amorrua... eta kezka handia eragiten dit.

“Gurasoen pin”-aren ondorioz, polemika zerbitzatuta dago berriro. Zer da gurasoen pina? Gurasoen berariazko baimena eskatu behar da, ikasleek sexualitateari buruzko prestakuntza jaso dezaten.

Hala, gurasoek baimentzen badute soilik jasoko dute Aniztasunaren, Errespetuaren eta Berdintasunaren arloko prestakuntza. Imajinatzen duzue gauza bera eskatzen eboluzioaren teoria irakasteko, adibidez? Norbaitek alega lezake bere erlijio-sinesmenek beste jarrera bat defendatzen dutela eta eduki horiek seme-alabei ez emateko eskatu... Kaosa litzateke eskola-curriculumean, batetik, eta sinesmenak, bestetik, zientifikoki frogatutako benetako gertakariekin nahasiko lirateke.

Hezkuntza afektibo-sexuala mugatuz lortzen dena da errealitate jakin batzuk baztertzeko gai diren helduak sortzea, aukera guztiak erabat naturalak direnean

Hezkuntza afektibo-sexuala ematen denean, ez da praktika sexual espliziturik irakasten, batzuek argudiatzen duten bezala (pentsatu zer pasatzen zaien burutik hori sinesteko).

Irakasten zaiena da gizakia askotarikoa dela, ez dagoela bide bakarra guztiontzat, eta errealitate guztiak errespetatu eta berdintasunez tratatu behar direla. Gero, bakoitzak egin behar duen bidea egingo du. Baina gizarte bat sortu behar da, sentitzen dugun bezala askatasunez garatzeko, eta gure alderdirik intimoenean, sexualitatean, ez ezkutatzeke eta ez ukatzeke. Eremita horren zer garen, hori da bizitzaren gainerako arloen oinarria.

Hezkuntza afektibo-sexuala mugatuz lortzen dena da errealitate jakin batzuk baztertzeko gai diren helduak sortzea, errealitate horiek ulertzen ez dituztelako; izan ere, inork ezin izan azaldu gizakia askotarikoa dela eta aukera guztiak erabat naturalak direla errespetutik.

**IRAKURTZEKO:** *Educación de Navarra, SKOLAE programa.*



**Kanpoko  
hotzaren  
aurrean...**

**...ETXEAN  
BERO-BERO**

2020ko  
urtarrila

fonta.amana@gmail.com



**AMAÑA**  
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA  
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637

**Jardines Iturgintza**

Jardiñeta, 11 B info@fontaneriajardines.net



**ELEKTIBAR, S.L.U.**  
**ELEKTRIZITATEA**  
**PROIEKTUAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**INSTALAZIOAK**

- \* Denetariko **ERREFORMAK**
- \* **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- \* **ATE AUTOMATIKOAK**
- \* **BERO URDINA**

**JOSU BENGEOA**

Indalezio Ojanguren 2, behea EIBAR  
☎ 943 70 05 42 Faxe: 943 53 02 31 electibar@gmail.com  
Aurrekontuak konpromezurik gabe



## Berokuntza zentralerako banakako kontagailuak zer diren eta nola funtzionatzen duten

**Banakako berokuntzak eta banakako berokuntza zentralak abantailak eta desabantailak dituzte.** Berogailuaren deszentralizazioak askatasun osoa ematen digu gehien komeni zaigun eta gure erosotasun-beharretara hobekien egokitzen den sistema aukeratzeko. Hala ere, Europako araudietan berriki egin diren aldaketek nabarmen handitu dituzte berokuntza-sistema zentrala edo komunitarioen abantailak.

Europako Batasuneko estatu kide guztiek bete beharreko araudi berria sartu da indarrean orain gutxi. Neurri berri horien bidez, berokuntza-sistemen eraginkortasuna eta errendimendua handitu nahi dira. Hala, baldintza hobekiak izateaz gain, ingurumena zaintzen da eta energia-kontsumoa murriztu. Berokuntza zentralerako banakako kontagailuak banakako berokuntzakoak bezalako-

ak dira. Alde bakarra da galdararen sistema orokorrera konektatuta dagoela. Horiekin, etxebizitza bakoitzaren kontsumoari buruzko informazio zehatza lortuko dugu. Hala, aukeratutako doikuntzekin egiten ari garen energia-kontsumoaren berri zehatza izango dugu.

Banakako berokuntza zentralari esker, gure parametroak alda ditzakegu kontsumoa murrizteko. Horrela, fakturretan ordaindu beharreko zenbatekoa ere murriztuko da. Bestalde, neurri berri horren bidez, gehien kontsumitzen dutenek gehiago ordainduko dute, eta gutxiago kontsumitzen duten etxebizitzek, berriz, proportzioan murriztuko dituzte beren fakturak. Gure etxebizitza-blokean berokuntza zentrala baldin badugu, kontagailuak instalatu besterik ez da egin behar harko banakako berokuntza zentralera pasatzeko. Hala, banakako berogailua izango dugu, zentralaren abantailekin.



**IZARRAITZ  
LEIHOAK-ERREFORMAK**

**Leihoak - Pertsianak - Bainuak  
Toldoak - Manparak - Ateak  
Parketa - Era guztiko erreformak  
Peoren konponketa...**

**Bidebarrieta, 48** **EIBAR (SONIA)**  
Tel. 943 25 60 26 ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com



**Aluminiozko eta  
PVC-ko aroztegia**  
baita toldoak, gortinak,  
estoreak etabar

**Txonta, 30 - 1. eta behe**  
tel. 943 12 13 67 • [www.ulmar.net](http://www.ulmar.net)

**ERAKUSKETA: Urkizu, 26 • Tel. 943 12 74 01**



**bravo**  
ITURGINTZA • GASA • KALEFAKZIOA

**-ERREFORMAK** **-GASA ETA KALEFAKZIOA**  
**-ITURGINTZA** **-GREMIOEN KOORDINAZIOA**  
**-GALDARA ALDAKETAK** **-LURZORU ERRADIATZAILEA**

**Bista Eder, 13** **Tel. 629 977 057**  
**fontaneriabravo@gmail.com**

**SARGORI**

**BEROKUNTZAK S.L.**

**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA  
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA  
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

**San Agustin, 2-4 - J lokala**  
**Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03**

## Etxean berogailu teknologikoagoa eta modernoagoa izatearen abantailak

Berokuntza teknologikoa gure etxea modu adimentsuagoan hornitzeko aukera da. Ez da etorkizunaren kontua. Gutxien espero ditugun gauzetan daude teknologia eta aldaketak, eta berokuntza-teknologiak ez du hortik alde egiten. Baina, ezagutzen dituzu berokuntza teknologikoagoarekin izan ditzakezun abantaila guztiak? Abantaila asko daude, baina hiru garrantzitsuenak nabarmendu nahi dizkizugu.

– Aurrezki: gure berokuntza-sistemak nahi dugun bezala eta nahi dugunean programatu ahal izateak hilean %20raino aurrezteak dakar.



– Erosotasuna: berokuntza mota honekin, denbora galtzea saihesteaz gain, nahi dugunean izan dezakegu gure etxebizitza beroa. Berokuntza noiz itzali kontrola dezakegu, etxetik atera aurretik itzaltzea ahaztu bazaigu.

– Ingurumena: berokuntza-sistemetan kontrol handiagoa edo erabateko kontrola dugunez, energia asko aurrez dezakegu. Aurrezki horrek, gure poltsikoan ez ezik, ingurumenari ere zuzenean egiten dio mesede.

## Termostato digital programagarria, kronotermostatoa

Ohiko termostatoak ordezkatzeko dituen ekipamendua da, eta tenperatura kontrolatzeaz bakarrik arduratzen da. Kronotermostatoen funtzio nagusia da tenperatura desberdinak programa ditzaketela eguneko ordu desberdinetan. Oro har, orduak "confort" gisa eta beste batzuk "eco" gisa markatu ohi dira. Erosotasun edo confort orduak etxean gauden orduak dira, eta tenperatura nahi duguna da (neguan altuena eta udan baxuena). "Eco" izeneko orduak etxean ez gauden orduak dira.

Beraz, gure etxeko klimatizazioa martxan jartzeko programa daiteke. Horrela, lanaldi baten ondoren etxera iristean, etxebizitzak tenperatura egokia izango du. Gainera, etxe-

tik irtetean, klimatizazioa bakarrik itzaltzen da, eta, hala, energia kontsumitzeko beharrezkoak ez diren gastuak saihestu ditzakegu. Kronotermostato modernoek berogailua telefono mugikorren bidez pizteko aukera ematen dute. Horrela, etxera itzuli baino pare bat ordu lehenago aktibatu dezakegu berogailua.

– Abantaila: zehaztasun handiz programagarria izateko aukera, konfigurazio-aukera ugari, eta erabilera egokiarekin gure fakturan %15-20 aurrezteak lor dezakegu.

– Desabantaila: garestiak izaten dira, beste termostato konbentzional batekin alderatuta, eta pilekin elikatzen dira.



# IGAKRISTALDEGIAK

## KRISTALDEGIAK

**TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 –EIBAR–**  
Tfnoak. 943 70 25 41 / 670 21 46 25 Faxe. 943 70 24 95

**ERAKUSKETA ETA SALMENTA:**  
Birjiñape, 1 behea Tfnoa. 943 20 20 40  
cristaleriaiga@gmail.com

TAILERRA:  
Errekatxu, 3

CLIMALITekin **isolatzaile onena lortuko duzu**  
akristalamendu bikoitzaz


## ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: **Arikitxaneko Zubian** eta faxe: 943 20 39 03  
info@cristaleriaacha.com

## VENTANAS ONA LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.


Bidebarrieta, 28 - behea  
Tel. eta Faxe: 943 20 28 28  
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415  
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



# MARTXOAK 11, 12 eta 13 Eibarren

(eguztena, eguena eta barixakua)

# GIL LEHIAKETA DA



- Taberna bakoitzak **GILDA BAKARRA** aurkeztuko du.
- Aurkeztuko den gilda ...eta kitto!-k emandako **TXARTELAREKIN IDENTIFIKATUKO** da eta, asko jota, **EURO BATEN** salduko da.
- Izena emateko azkeneko eguna: **OTSAILAK 7**.
- Parte-hartzaileek **GILDAREN ARGAZKIA** ...eta kitto!-ra bidaliko dute **OTSAILAREN 14**rako, whatsapp-**ez** (605 71 14 22) edo email-**ez** (komunikabideak@etakitto.eus).



## SARIAK:

Epaimahaiaren saria: 150€

Herritarren saria: 150 €

**Epaimahaia:** Mireia Alonso, Josu Mugerza eta Ruben Etxaniz.

**Informazio gehiago:** 943 20 09 18



## Asteburu bikaina Avia errugbi taldeentzat

Emakumezkoen taldeak garaipen argia lortu zuen Ohorezko B Mailako bigarren jardunaldian, Unben Madrilgo XV Hortalezari 46-5 irabazita. Partiduaren hasieratik hasi zen agintzen etxeko taldea eta lehen zatia 20-5ekoarekin amaitu zen. Bigarren zatiak bide beretik jo zuen eta Aviakoak ondo nagusitu zitzaion aurreko denboraldian Ohorezko Mailan jokatu zuen taldeari. Hala ere, eibartarrek diotenez, "gure jokalariek aurkariengandik ikas-teko aukera izan dute". Asteburu honetan Katalunian izango dute erronka, San Cugatekin domeka eguerdian jokatu beharreko partiduan.

Oraingoan gizonen taldeak ere ezuste eman zuen sailkapenean askoz aurrerago dagoen Campus Ourenseri 32-34 irabazita, aukera bikain aprobeztatu eta etxera



*Eibartarrek meritu handiko garaipena lortu zuten Galizia aldean.*

lau punturekin itzultzeko. Jakina, neurketa ez zen erraza izan inola ere, baina Gaston Ibarbururen mutilek ondo eutsi zioten atsendaldirako lortutako zazpi puntuko aldeari. Hala ere, partidua berdinketa ere izan zuen markagailuan, azken unean Gaizka Arrizabalagak ostikoa gauzatzea lortu zuen arte. Bihar Avileseko Belenos izango dute aurkari Unben, arratsaldeko 16:00etan hasiko den norgehiagokan.

## Andoni Mayok bigarren jarraitzen du Euskadiko Txakurkros Ligan

Liga horretako laugarren proba jokatu zen aurreko asteburuan Hondarribiko Higer argi-etxearen inguruan. Zapatu eta domeka hartu zituen probak: zapatuan gaez, "frontalekin lagunduta egin beharreko" lau kilometro eta erdiko ibilbidean, eta domekan goizez, zortzi kilometrokoan. Andoni Mayok eta Dexter txakurrak laugarren amaitu zuten lehen egunean eta zazpigarren bigarren; bi denborak batuta laugarren sailkatu ziren eta, horri esker, bigarren jarraitzen dute Ligan. Sonia Dominguezek eta Zeus txakurrak, euren aldetik, 12. izan ziren gaez eta 18. egunezko proban; asteburuko bi denborak batuta, 14. sailkatu ziren sailkapen orokorrean. Asteburu honetan Zumaian izango dute ligako bosgarren proba.



## Urki eta Eibartarrak igoera fasean

1. Erregional mailako herriko talde biak igoera fasea jokatzeko sailkatu dira, aurreko asteburuan lehen faseko liga amaitu eta gero. Azken jardunaldian garaile izan ziren biak: Eibartarrak-ek 0-6 irabazi zion Ikasberriri Azpeitian eta Urkik 1-0 garaitu zuen Mutriku Unben. Urkik sailkapeneko bigarren postuan amaitu du aurreko fase hori eta Eibartarrak hirugarren izan da. Ez dute erraza izango Gorengo Mailara igotzea, baina erronka polita dute aurrean.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

EIBAR - Betis (etzi, 14:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila

EIBAR - Alaves (etzi, 12:30)

#### 3. Maila

Beasain - VITORIA (bihar, 17:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B - Lakua (bihar, 16:00)

#### Ohorezko Erregional Maila

EIBAR URKO - Ordizia (etzi, 12:30)

#### 1. Erregionala

URKI - Ordizia (bihar, 18:00)

Anaitasuna - EIBARTARRAK (bihar, 16:30)

#### Emakumezkoen Gorengo Maila

EIBAR - Añorga (etzi, 18:00)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

Athletic - EIBAR (etzi, 12:00)

#### Euskal Liga

Astrabduako - EIBAR B

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

Olarizu - EIBAR (bihar, 16:00)

### FOBALL-ZALETUA

Slow XOK - La Jara (bihar, 09:00)

Chic - Bar Txoko (bihar, 09:00)

Ipur Sagar. - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

Illunpe Areto - Los Paisanos (bihar, 12:00)

Feredu - JMR Erreformak (etzi, 09:00)

Durango - Azkena Adahi (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

El Pilar Maristas - SOMOS (bihar, 19:45)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

Ereintza - MECALBE (bihar, 17:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

Soraluze Bergara - EIBAR (bihar, 20:00)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

AVIA - Belenos (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

San Cugat - AVIA (etzi, 12:00)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

AVIA (atsedena)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Leioa WLB (gaur, 21:45)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Bidasoa XXI - URBAT (bihar, 20:30)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

## Urbat Urkotronik-ek Euskal Herriko Kopa irabazi du berriro ere

Eibarko waterpoloia protagonista dugu berriro, iaz irabazitako Kopa berretsi duelako senior mailako gizonetzkoen taldeak. Ez da emakumezkoen kasua izan, azken horiek ezin izan dutelako iaz lortutako txapela berretsi, azken fasera heldu arren. Donostiako Paco Yoldi igerilekuan jokaturako zapatuko jardunaldian, goizeko saiko finalerdietan Urbateko gizonetzkoen taldeak 11-8 garaitu zuen WP Donosti eta emakumezkoenak amore eman zuen Leioarekin 10-7. Arratsaldeko saioan emakumezkoen Urbatek 7-6 galdu zuen Bidasoarekin hirugarren eta laugarren postuak jokoan zeuden partiduan eta, jardunaldiari amaiera emateko partiduan, Eibarko gizonetzkoen taldeak 12-10 irabazi zion WP 9802 taldeari, modu horretan Euskal Herriko Kopa berriro bereganatuz. Donostian jokaturako azken fasean, gainera, Urbate-



*Urbateko talde bietako ordezkariak pozik Donostian lortutako emaitzekin.*

ko taldeak ez ziren bakarrik egon, Eibartik joandako ehun bat lagunuen animoak eta laguntza jaso baitzuten partiduetan.

Honakoak izan dira Kopako txapeldunak: Paul Alberdi, Mikel Basterrika, Xabier Egidazu, Alberto Etxebarria, Kerman Ispizua, Asier Ortiz de Zarate, Mikel Recio, Ekhi eta Izei Sologaistua, Ander, Eneko eta Jon

Treviño, Unax Unzeta, Xabier Varela eta Martin Zamakola. Emakumezkoen taldea, bestalde, hauek osatu zuten: Ainhoa Agirre, Ezozi Akizu, Sara Arizaga, Paula De Maria, Jone Gomez, Alaitz Ibarrola, Sara Leturiaga, Elene Molina, Ireide Sarria eta Alaitz eta Alazne Ziarsolo.

## Ipuruako gimnastak amateur eta eskolarteko denboraldia abiatzear

Urte hasierarekin batera behin denboraldi berrian sartuta, otsaila eta ekainaren artean Ipurua klubeko gimnasta gehienek hainbat mailatako lehiaketetan hartuko dute parte. Bihar, esaterako, Gipuzkoako amateur txapelketaren lehen fasea jokatu da Bergaran. Kadete B mailako bi talde, jubenil B taldea eta banakako lanetan jardungo duten hamar gimnastek osatuko dute Ipuruako ordezkari-tza amateurretan. Eskolartekoek, berriz, otsailaren 16an hasiko dira Zarautzen: hor infantil eta alebin mailetakona talderekin batera, beste hiru gimnastek hartuko dute parte bakarkako lanean. Egun berean txikienek ere euren lana erakusteko aukera izango

dute benjamin mailako topaketan. Gipuzkoako Gimnasia Federazioak antolatzen duen amateur eta eskolarteko txapelketak indar handia hartu du azken urteetan, eta sailkapen faseetarako bi gutnetan banatu dute lurraldea.



Federatuen arloan, berriz, bakarkako lehia da izango da nagusi ekainera arteko denboraldian; hor Ipuruako senior mailako bederatzi gimnasta eta oinarri kadeteetako beste bat ahaleginduko dira Espainiako txapelketarako txartela lortzen. Talde lanarentzako aukerak ere izango dira sei hilebeteko tarte horretan: Ipuruako hiru talde aurkeztuko ditu antolatuko diren Kopa faseetan lehiatzeko. Federatuen lehen hitzordua otsailaren 22an jokatu den Euskal Liga izango da.



## Eibar-Betis etzi 14:00etan, hurrengo zapatuan Gasteizera joan aurretik

Eibar FT-k jaitsiera postuetatik sei puntura jararitzen du aurreko domekan Celtarekin Vigon husna berdindu eta gero. Borroka berean garrantzi handiko partidua jokatu du etzi Ipuruan, Sevillako Betis bisitari duela. Bestalde, hurrengo asteburuan Mendizorrotzan izango dute erronka Mendilibarren mutiek, hilaren 8an 18:30ean. Partidu horretarako sarrerak salgai daude Ipuruako bulegoetan. Euretako 230 Premier Bidaiek-ek antolatutako autobus irteerarako gordeko dira; autobusak 11:00etan eta 16:00etan irtengo dira Ego-Gainetik.

## Bolunburu Memorialak Gipuzkoako kros txapelak erabaki zituen

Aurreko domeka goizean eguraldi eta giro paregabean jokaturako lasterketan, Goierri Garaiko Ainhoa Sanzek eta Deportes Apalateguiko Hossain Kaanachek, Arrateko proba irabazteaz gain, egun horretan amaitzen zen kros denboraldiko Gipuzkoako txapela jantzi zuten eta Laboral Kutxa Saria bereganatu. Horrez gain, LXIX. Bolunburu krosetan guztira 250 atleta izan ziren parte hartzen eta, Klub Deportiboko ordezkarien artean, Kalaka Gonzalez nabarmendu zen: bere hirugarren postuari esker, gainera, Gipuzkoako txapela jantzi du 18 urtetik beherakoenen artean. Iker Gisasolak 13. amaitu zuen proba berean. Eibartarren bestelako emaitza aipagarrienak honakoak izan ziren: absolutoetan, Julen Teran zazpigarren, Txomin Osoro hamargarren eta Igor Fernandez 22. postuan; maste-



rretan, Roberto Gartzia (14) eta Markos Untzetabarrenetxea (22); infantiletan, Alaitz Sanz hirugarren, Iraia Miñana (11), Enara Gabiola (13) eta June Arosa (14);

eta alebinetan, June Alberdi seigarren, Irati Arizmendiarieta (11) eta Elene Arrazola (15), eta Martin Elorza (16) eta Igor Usabiaga (18).



## Eibar Eskubaloiko taldeek jardunaldi aparta eskaini zuten

Senior mailako hiru taldeak irabazle izateaz gain, bide beretik jo zuten harrobiko talde gehienek ere, bat edo beste kenduta. Seniorretan egia da hirurek etxean jokatu zutela, baina garaipenak ez dira hain errazak izaten maila horretan. Larrien 1. Nazional Mailako Somos Eibar ibili zen, Barakaldoren aurkako partidu guztian ezin izan zuelako ihes egin markagailuan (beti aurretik, baina bi goleko errentatik gora pasatu ezinik); azkenean, gainera, Mikel Guerrak geratutako penaltiari esker 26-25 irabazi zuen. Azken aldian bikain jardun dute Fernandez

mutilek, lau partidutik hiru bereganatuta. Probintziako 1. Mailan, Mecalbe emakumezkoen taldeak 27-18 irabazi zion Urnietari eta Eibar Eskubaloia gizonetzkoen bigarren taldeak 27-22 Donibaneri. Asteburu honetan hirurak bidaiari izango ditugu.

Harrobiari begira, jubenil mailako talde biek erraz irabazi zituzten euren partiduak eta Grupo Mecalbeko neska hirugarren postuan amaitu dute sailkatuta. Kadeteetan ere partidu guztiak irabazi zituzten, bat kenduta. Eta infantiletan ere garaipenak porrotei nagusitu zitzaizkien.



## Mendi irteerarik gertukoena

Aurreko zapatuan Klub Deportiboak antolatutako irteeran egin zutena. Ixuan hasi eta Urkora igo zuen 40 lagun inguruko menditaldeak, gero Trabakuara jo eta Zaldibarko Goierriin amaitzeko. Irteera Deba Bailararen Itzuliaren bigarren etapa izan zen.

## Kalamuako hirukotea bikain Gipuzkoako junior txapelketan

Lehiaketa ofizialetan euren debut-eguna bazen ere, bikain erantzun zuen Kalamuak aurreko zapatuan Hondarribiko Jostaldi frontoian aurkeztu zuen hiruko ordezkariak. Gipuzkoako junior mailako txapelketa eta infantil mailako sailkapenerako izan ziren jokotan bertan eta Eibar

ko judokak bi dominekin bueltatu ziren: Nerea Antxiak zilarrezkoa irabazi zuen, Maia Alzelaik brontzezkoa eta Ane Fuldain bosgarren sailkatu zen.





# Mugarik gabeko elkartasuna

Iheslarien esparruak ezagutu dituzten eibartarrek han bizi den egoeraren testigantza utzi digute hainbat elkarrizketatan. Hango egoera irudikatzea hunkigarria bada eta hura gertutik ezagutzea gogorra bada, zer izango da han bizitzea? Eibarko hainbat elkarte eta bizilagunek elkartasuna adierazi izan diete Tinduf (Aljeria) eta Lesbosen (Grezia) dauden errefuxiatuei, eta herritarrek erantzun ona eman dute martxan egon diren kanpainetan. Oraingoan ez da gutxiago izango.

**M**ireia Alonso eta Jesus Gonzalez sukaldariak Lesbosen iheslari esparruan dauden errefuxiatuei laguntzeko janaria jasotzeko kanpaina jarri dute martxan eta, iaz bezala, Eibarren dilista pardinak eta Ermuan arroza jasoko dituzte. Jendearen erantzun paregabeak antolatzaileen aurreikuspenak gainditu zituen iaz (1.750 kilo lenteja bildu ziren Eibarren, antolatzaileek 1.000 kilo jasotzeko helburua zutenean, eta Eibar eta Er-

mua artean 4.000 euro bildu zituzten), eta aurtengo arrakasta izatea espero dute antolatzaileek. Dilistak jasotzeaz gain, dirua ere esker onez jasoko dute, edozein laguntza beharrezkoa delako errefuxiatuentzat.

Kanpaina koordinatu eta azken xehetasunak zehazteko lehen bilera egin zuten eguaztenean, baina dagoeneko prestatu dituzte hainbat ekintza. Adibidez, Eibar FT eta Athletic Clubek martxoaren 22ko asteburuan jokatu duten derbiaren egunean (eguna eta ordua zehaztu gabe dago oraindik) salda, txorizoa, Debabarrenako gazten dastaketa eta Lumagorriekin osatutako dilista eta arroz tupperrak eskainiko dituzte udaletxeko arkupeetan. Gainera, ostalariek eta kolektiboek prestatutako pintxopote solidarioa eskainiko dute Untzagan. Bestetik, zozketa bat antolatuko dute dirua biltzeko, eta bi laguntzako afariak zozketatuko dituzte Eibar eta inguruko herrietako jatetxeetan. Pentsatutako guztia gauzatu ahal izateko boluntarioak behar izango dituzte, eta banakakoei, erakundeetara eta kolektiboetara dei egin diete kanpainen laguntzeko (eibarermuasolidarios@outlook.es helbidean informazio gehiago jaso daiteke).

Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) bitartez kudeatuko dute jasotako laguntza. GKE honek urteak daramatza Lesbosen lan egiten eta baliabiderik ez duten 1.500 laguneri jaten ematen diete egunero. Han bizi den egoera ez da erraza eta urtetik urtera gogortzen doa Zaporeak dioenez. *“2019an zehar greziar uhar-teetako errefuxiatu kopurua hirukoiztu egin zen (14.615 lagunetik 42.421 lagunera pasatuz), iritsi zen iheslari kopurua bikoitza izan zelako (32.276 izatetik 60.720 izatera) eta penintsulara eraman zituztenen proportzioa ez delako modu berean hazi. Asilo eskaerak geldituta daude, blokeatuta”*. Lesbosen 21.268 errefuxiatu zeuden 2019. urte amaieran eta Moriako errefuxiatuen esparruan pilatzen dira iheslarien %98. *“Eremua gainpopulatu dago”*, diote Zaporeakoek eta urtearen bigarren seihilekoan iritsi diren emakumeak, haurrak eta pertsona helduak bat-bateko kanpin dendetan bizi dira. *“Oso egoera larrian, higiene falta handiarekin eta babesgabe daude”*.

Grezia eta Turkiako gobernuak *“Zaporeak bezalako GKEen lana ikaragarri zailtzen”* badute ere, Zaporeak buru-belarri dihardu lanean. Berriki, Lesbosen dauden



errefuxiatuei elikadura osasungarri eta freskoa eskaintzeko asmoz, furgoneta bat erosteko beharra ikusi zuen GKEak. "1.500 otordu inguru kozinatzen ditugu maitasun handiz, baina ahalegin hori eze-rezean geratzen da ezin baditugu banatu". Urtarrilaren 7tik martxora arte 40.000 euro biltzeko kanpaina jarri zuten martxan eta dagoeneko lortu dute kopuru horretara heltzea. Zaporeakekoek harrিতa eta esker onez jaso dute herritarren elkartasuna. "Ikaragarria izan da euskal gizartearen babesa eta engaiamendua". Hala ere, dirua biltzen jarraituko dute, hilero aurrekontu altu bati egin behar diotelako aurre. Horretarako, bi kontu zenbakitan egin daiteke ekarpena (ES32 2095 5011 80 9115250322 Kutxabank, eta ES71 3035 0103 88 1030035880 Laboral Kutxa).



### Sahararen aldeko karabana

Mendebaldeko Saharako errefuxiatuek 35 urte baino gehiago daramatzate Tindufeko errefuxiatu esparruan. "Marokok Espainiaren oniritziarekin beraien lurraldea okupatu zutenetik (1975. urtean), 200.000 lagunek Tindufeko kanpamentuetan bizirik irauten jarraitzen dute, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) aginduari jarraituz autodeterminazio erreferenduma egiteko zain", Eibar-Sahara elkarteak adierazten duenez.

Elkarte eibartarrak urteak daramatza Saharako errefuxiatuen alde egiten eta hainbat kanpaina jarri dituzte martxan urte hauetan. Orain, 'Sahararen Aldeko 16. Euskal Karabana' egitasmoaren barruan,

laz 1.750 kilo dilista  
pardina bildu zituzten  
Lesboseko errefuxiatuei  
laguntzeko

janari bilketa egiten dihardu sahararrei laguntzeko. Gaur bertan amaituko da kanpaina, baina herritarrek elkartasuna adierazi diete Ipuruako, Urki eta Urkizuko Eroskin, Villalban, Corte Inglesen eta Isasi okindegian jasotako elikagaiekin (arroza, pasta, lekaleak, azukrea, atun-latak, olioia, sardina-latak eta konpresak).

Kanpoko laguntzaren beharra dute Tindufen bizi diren sahararrek. "1975. urteaz

geroztik ACNUR, Europar Batasuna, ECHO eta Elikagaien Munduko Programa arduratu dira errefuxiatuak elikatzeaz, baina elikagaiak ez dira behar den erregularitasunez eta behar den kantitatean helitzen", Euskadi-Sahara koordinadorearen berbetan. Beraz, ez dira beharrak asetzen, eta elikagai osagarriak jaso behar izaten dituzte desnutrizio-maila ezberdinak dituzten 6.380 emakume eta umek.

Saharako errefuxiatuen bizi-kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzeko asmoz antolatu dute 'Sahararen Aldeko 16. Euskal Karabana'. "Errefuxiatuen elikadura-segurtasuna indartzea da helburua, euren osasun eta ongizaterako gako delako". Horrela, Euskal Herriko hainbat tokitan janariak batu ondoren, karabanan eramango dituzte Saharara otsailean eta han Saharako Ilargi Erdi Gorria arduratuko da elikagaiak banatzeaz.

Mendebaldeko Saharako herritarrek 35 urte daramatzate bere jaioterritik kanpo, "baina bizirauteko nahi irmoa dute eta borrokan jarraituko dute euren herrialdea askatu arte", koordinadorearen berbetan. 35 urte hauek ez dira errazak izan sahararrentzat eta hainbat adituk gerra hotsak entzun dituzte azken aldiak. Izan ere, abendu amaieran eta urtarrilean zehar hautsak harrotu dira Sahara inguruan, Marokok bere itsasoko mugak hedatzeko alde bakarreko erabakia hartu duelako barne-legeria erabiliz. Mohamed VI.aren erregimenak abiatu duen estrategia berria da, Mendebaldeko Sahararen itsaso-lurraldeak Marokorenak direla erreklamatzu eta Sahararen legezko kontrola lortzeko beste pauso bat emanez. Zapalkuntzak ez du etenik.



Saharako errefuxiatuei laguntzeko janaria bildu dute herriko hainbat supermerkatutan.



**MAITANE CAMPOS:** "Posatzen, harro eta elegante".

Sanblasko opilak egiteko amaren errezeta herrira zabalduko du Edurne Zenarruzabeitiak. Izan ere, opilak egiteko ikastaroa eskainiko du bihar Portaleko sukaldean, 11:00etatik 13:00etara, Arrate Kultur Elkarteak antolatutako ekimenean. Eibarko gozo famatua egiteko erabiltzen duen errezetaren sekretuak kontatu dizkigu. Belaunaldiz belaunaldi jasotako ondarea.

## EDURNE ZENARRUZABEITIA: “Sanblasko opilak banatzeko ohitura polita da”

**- Nola ikasi zenuen Sanblasko opilak egiten?**

Amarengandik ikasi nuen. Berak beti egin izan ditu opilak, mordo bat (etxeko-entzat, bere ahizparentzat...). Ezkondu nintzanean bere etxera jaisten nintzen sanblasko opilak egitera (etxean horrela deitu diegu beti opilei) eta gero nire etxera eramaten nituen batzuk. Ondoren, ama indar gutxiagorekin zegoenean, nire etxean hasi nintzen opilak egiten eta batzuk eramaten nizkion. Erreleboa hartu nion.

**- Urteekin errezeta aldatu duzu ama irakatsitako modu berean jarraitzen duzu opilak egiten?**

Errezeta aldatzen hasi nintzen, amak txerri-gantza erabiltzen zuelako eta nik gurina, baina amaren errezetara bueltatu nintzen berriro. Amak dena eskuekin egiten zuen eta nik, ordea, irabiagailua erabiltzen dut masa loditu arte, baina bestela amak bezala egiten dut. Ez dizkiet limoia edo horrelakorik botatzen.



**- Zuen errezeta ezagutzera eman daiteke?**

Bai, noski, ez du sekretu handirik. Hamabi arraultza erabiltzen ditut sei opil egiteko. Hiru arraultzaren zuringoak aparte uzten ditut gaineko blanketa egiteko, eta beste guztia katilu batean jartzen dut. Libra eta erdi azukre gehitzen diet arraultzei, eta hartzen duen iruna botatzen diot. Nik kilo eta erdi irun dut apuntatuta, baina eskatzen duena bota behar zaio. Masa mostadorean itsasten ez denean, orduan dago ondo. Gero legamia (zorro bat), 150 gramo txerri-gantz eta anis-esentzia (pote osoa) botatzen dizkiet. Irina gehitzen diot pixkanaka eta oratzen hasten naiz. Irabiagailuak buelta gehiago eman ezin dituenean, mostadore gainean ipini eta eskuekin oratzen dut. Irina bota eta oratu, masa eskuekin hartu ahal izan arte. Sei bola egin eta arrabolarekin zabaltzen ditut (amak ardo botilarekin egiten zuen). Forma eman eta labanaren puntarekin bi mozketa txiki egiten dizkiet puntak egiteko. Bestetik, aparte lagatako zuringoak elur-punturaino irabiatzen ditut, 300 gramo azukre-hauts gehitzen dizkiet eta 10 minutuz irabiatu egiten dut. Blanketa egiteko nahasketa hori aparte lagatzen dut eta sei zatiak labean sartzen ditut (nire labean binaka sartu ahal ditut). Berotzen direnean, labetik atera eta silikonazko espatularekin blanketa jartzen diot. Gero, lehortzen uzten dut. Lehen gau osoan uzten nituen, baina gaur egun lehena go lehortzen zaizkit (ez dakit berogailuarengatik den edo zer). Guztiak lehortzen direnean gorde egiten ditut, bedeinkatu arte gure etxean ez direlako sanblasko opilak jaten. Gero, seme-alabei, ilobei, senarraren tailarrekoiei (nahiz eta orain jubilatua dagoen)... banatzen dizkiet.

**- Hori da politena, sanblasko opilak banatzea?**



Ez da komeni guztiak etxean lagatzea (barreak). Nire amaren ahizpa bat Azkoitian bizi zen eta pare bat opil eramaten zizkion, adibidez. Ohitura polita da.

**- Etxe bakoitzean modu batean egiten dira opilak?**

Atso batek esan zidan bere ahizpak esne-gaina erabiltzen zuela. Bigunagoa izango dela pentsatzen dut. Bestetik, gurina erabiltzen dute askok. Sanblasko opilak egiteko modu ezberdinak daude.

**- Txokolatezko San Blasak ere egiten dira. Sakrilegioa da hori?**

Blanketa duen opilak gustatzen ez zaizkionarentzat izango direla pentsatzen dut, txokolatearekin jango dutelakoan. Sakrilegiorik ez dago, bakoitzak nahi duen moduan egiten du. Amak 'San Blas' idazten zuen txokolatearekin blanketaren gainean. Adibidez, niretzat oso bigunak diren opilak ez dira sanblasko opilak, gurean beti izan direlako gogorrek, baina tira.

**- Gaur egun urte osoan zehar erosi daitezke. Erosten dituzu?**

Nik sasoi honetan bakarrik egin eta jaten ditut. Pellekin ere berdin, aratosteetarako egiten ditut eta kitto.



**LUCIA BASKARAN**  
(idazlea)

## “Emakumeok jasaten ditugun eguneroko biolentziak irudikatu nahi nituen liburuan”

Zeresana eman du Lucia Baskaran idazlearen ‘Gorputz madarikatuak’ liburuak eta, hain zuzen ere, liburu hau izango da mintzagai ‘Harixa emoten’ egitasmoaren hurrengo saioan, otsailaren 4an, Portalean. Kontakizun hunkigarri honekin distira egiten du Zarauzko idazleak, ‘Partir’ liburuan utzitako sentsazio zoragarriak berretsiz.

### - Zeintzuk dira gorputz madarikatuak?

Emakumeon gorputzek eta emakumeok jasaten dugun biolentziak garrantzia handia dute eleberrian, eta horren harira sortu nuen izenburua. Oso aukera biszerala izan zen. Eleberria irakurri eta gero argi geratzen da gorputz madarikatu horiek emakumeon gorputzak direla.

### - Gutxiegi entzuten dira gorputz madarikatu horien ahotsak?

Eguneroko biolentziak irudikatu nahi nituen liburuan. Uste dut denok dugula argi zer den biolentzia fisikoa, baina eguneroko biolentziak ez dira askotan aipatzen eta ez diegu kasu handirik egiten.

### - Zertaz ari zara eguneroko biolentzia aipatzen duzunean?

Adibidez, emakumeon gorputza objektibizatu egiten dela. Kanpoan dagoen begirada patriarkala barneratu egin dugu eta horrek eragina du gure gorputza begiratzeko dugun moduan.

### - Gai latzak, gogorak, lantzen ditu liburua. Idazteko orduan ere gogorra izan da zuretzat?

Ez da erraza liburuan azaltzen dena azaleratzea, baina horregatik aukeratu nuen nigandik urruti zegoen pertsonaia bat, distantzia apur bat hartzeko. Ez dira gai errazak eta pauso bat atzera ematen saiatu nintzen beste pertsona baten azalean sartuz.

### - Non aurkitzen duzu idazteko inspirazioa?

Kasu honetan, lagun batek istorio bat kontatu zidan eta hori izan zen inspirazioa. Istorio hori fikziora eramatea erabaki nuen, aipatutako gaiei buruz berba egin nahi nuelako. Emakumeok jasaten ditugun biolentzietan buruz idatzi nahi nuen. Ez bakarrik kalean gertatzen diren biolentziak, baita familian isilpean gertatzen diren biolentzietan buruz ere. Argi nuen gai batzuei buruz idatzi nahi nuela, baina benetan gertatu zen istorio batean aurkitu nuen inspirazioa.

### - ‘Harixa emoten’ saioan liburuaren irakurleekin zuzeneko hartu-emana izango duzu. Antzeko esperientziarik bizi izan duzu?

Bai. Orain dela gutxi Hondarribian egon nintzen liburuaren irakurleekin solasaldian eta oso esperientzia polita izan zen. Durangoko Azokan ere egon nintzen eta irakurleekin berba egiteko aukera ona izaten da. Horrelakoak oso ondo daude, ez dugulako irakurleekin egoteko aukera askorik izaten liburuarekin izan duten esperientzia ezagutzeko. Azken finean, nik istorio bat kontatu nahi izan dezaket, baina bakoitzak bere irakurketa egiten du eta oso interesgarria da bakoitzak nola irakurri duen ezagutzeari.

### - Espero zenuen moduan jaso du irakurleak liburu hau?

Ez nau gehiegi harritu jendeak liburu nola hartu duen, baina bai harritu nau 50 urte inguruko emakume askok irakurri dutela ikusteak. Asko pozten nau horrek.

## Hainbat kalejira egingo dira Santa Ageda bezperan



**Ohitura zaharrari jarraituta, aurten ere herriko hainbat talde kalejiran irtengo dira** otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, Siziliako martiriaren omenezko koplak kalerik kale kantatzera. Azken urteotan bezala, aurten ere ...eta kitto! Euskara Elkarteak santaeskea egingo du. Horretarako, 17:00etan hitzordua ipini dute elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuar-tean), kalera irten aurretik entsegu egiteko. Kalejira, berriz, 17:30ak aldera hasiko dute, Eibar-ko Kantuzaleak taldekoek lagunduta, eta Urkizu inguruan ibiliko di-

ra. Amaieran, berrindartzeko, mokadutxo eskainiko zaie parte hartzen duten guztiei. Juan Bautista Gisasola musika eskolako ikasle eta irakasleek ere kalejira egingo dute, 17:00etatik aurrera, baina Portalea ingurutik abiatuko dira kantuan. Kaleetan Kantuz taldekoak, berriz, 18:00etan abiatuko dira, Urkizutik. Eta Sostoa abesbatzaren kalejira 20:00etan hasiko da. Koskor taberna aldameneko eskaileretan denak elkartu eta gero, Urkizura jaisten joango dira, ohiko ibilbideari jarraituta (Kultu, Ibarburutze, Urkizu).



## Pinotxoren bertsio modernoa taularatuko du Gorakadak

Gorakadaren lanik berriena, "Pinocchio" izeneko otsailaren 8an ailegatuko da gurera, 17:00etan Coliseoan hasiko den emankizunarekin. Diotenez, "proposamen arriskutsua eta kalitatezkoa" da eta euskeraz antzetzuko dute. Collodiren "Pinocho"-ren bertsio honetan, Gorakadak historia hilezko haren elementu askori eusten die, baina eguneratu ere egiten du. Izan ere, euskal konpainiaren Pinotxoa modernoa da, "trash, punk samarra, kaletarra, gaurkotasun handiagoko gaiez kezkatua eta XXI. mendean kokatua". Estetika aldatu diote, gaurko publikoari egokitzeko eta kode berriak proposatzen ditu istorioak kontatzeko, oso klasikoak izan arren. Jose Carlos Garciak zuzenduta, taula gainean jardungo duten aktoreak Pako Revueltas, Nerea Ariznabarreta, Aroa Blanco eta Pau Torres dira. Sarrerek 5 euro balio du.

## The Neatbeats hartuko du Portalea Musika Klubak

Otsailaren 9an izango da Portalea Musika Kluba egitasmoari lotutako hurrengo saioa. Oraingoan The Neatbeats, askorentzat munduko Rhythm 'n' Beat talderik onenaren txanda izango da. 1997an Osakan osatutako taldeak orain arte 9 LP plazaratu ditu. Musika-tresna jotzaile apartak izaki, estilo ugari eskaintzen dituzte, "ongi pasatzeko eta jostatzeko makina perfektua". Kontzertua 19:30ean hasiko da, Portaleko areto nagusian, eta sarrerek 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Serigrafia tailerrerako izen-ematea

Serigrafia tailerra egingo da datorren martitzenean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen Ilunabarrian ekimenaren barruan antolatutako saioan. Tailerra Arima Cooltour-en eskutik egingo da, 18:30ean ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartea). Izena ematen dutenek oihalezko poltsetan mezu, eslogan eta irudiak serigrafia bidez estanpatzen ikasiko dute guztiz praktikoa izango den tailerrean. Izena emateko ...eta kitto!-ra joan, 943200918 telefono zenbakira deitu edo elkarte@etakitto.eus helbidera mezua bidali (prezioa 3 eurokoa da).

## Zine-forum saioa

Pagatxa emakume elkartearen eskutik zine-forum saioa egingo da datorren barixakuan (otsailaren 7an), 19:00etan Portaleko areto nagusian. Oraingo honetan Jason Reitmanek zuzendu eta Charlize Theron protagonista duen "Tully" filma ikusi eta, ondoren, komentatzeko aukera egongo da. Jarduera irekia eta dohainik da.



## Aratosteetarako lehiaketak

Aratosten inguruan lehiaketa bi antolatu ditu Udalak, bat Aratosteetan ondoen apaindutako taberna aukeratzeko (epaimahaia otsailaren 21ean, arratsaldean pasatuko da ikustera) eta bestea, berriz, Aratoste Zapatuko kalejiran (otsailaren 22an, 12:30ean) parte hartzen duten koadrilen artean onena saritzeko. Izena emateko epea otsailaren 20ra artekoa izango da eta, horretarako zein informazioa eskatzeko, Pegorara jo daiteke edo, bestela, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean begiratu.



*Manuel Telleria Mintegi*

1936-5-14 / 2020-1-24

Urak dakarrena, urak daroa.  
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.  
Etxekoak



## Otsailaren 7an emango du Lorelei taldeak kontzertua Eibarren

Hainbat urtetan eszenatokietatik kanpora egon den Lorelei taldea bueltan da, eta laster izango dugu Eibarren bere zuzeneko musikarekin gozatzeko auke-

ra. Urtarrilean hasi eta eta martxora arte Euskal Herriko hainbat tokitan kontzertuak ematen egongo da Lorelei taldea eta, jakina, horietako bat etxean izango

da: otsailaren 7an joko du Asier Serrano idazle eta kantariak eta Mikel Gorosabel musikariak (EH Sukarra) 1990eko hamarkadan sortutako taldeak, Coliseoan, 20:30ean hasita. Eibartar biek EH Sukarra taldearen diskoetan hasitako lankidetzari jarraipena eman zioten pop lirikoaren inguruan sortu zuten proiektu honetan. Serranoren "Bada hiri gorri bat" poema liburuan oinarrituriko diskoarekin eman zen ezagutzera taldea, 1997an, eta geroago "Tatuatu zenidan zerua" izeneko bigarren diskoa kaleratu zuten. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Eibarko bi euskaltegiak txio lehiaketa antolatu dute udalarekin lankidetzan

Eibarko Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak, udalarekin lankidetzan, TXIO lehiaketa antolatu dute. Parte-hartzaile bakoitzak 2020an irakurri nahiko lukeen txioa idatzi beharko du (140 karaktere gehienez), derrigorrez traola hau erabilia: #EibarTxio-Lehiaketa. Proposamen horiek honako helbide hauetara bidali daitezke: euskaltegia@eibar.eus, eibar@aek.eus edo euskara@eibar.eus. Txioa aurkezteko azken eguna otsailaren 23a izango da eta bi sari banatuko dituzte: bat epaimahaiak hautatutakoarentzat (Coliseoko emanaldi baterako bi sarrera, Armagintza Museorako



bi sarrera, eta udalaren hainbat argitalpen) eta bestea jendearen boto gehien jaso duenarentzat (Armagintza Museorako bi sarrera eta Udalaren hainbat argitalpen). Botoa [www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus) webgunean eman beharko da, martxoaren 22a bitartean.

## Heriotzari beldurra galtzeko moduko antzezlanak Coliseoan

Gaur 20:30ean hasiko da Kulunka Teatroren "Quitamiedos" izenburuko antzezlanak, Coliseo antzokian. Iñaki Rikartek (Gasteiz, 1981) sortutako eta zuzendutako lan horretan Jesus Barranco eta Luis Moreno aktoreek egiten dute lan, "antzezlan poetiko, dibertigarri eta hunkigarria" publikoari aurkezteko. Antzezikizunean gure bizitzan garrantzitsuak diren gaiak aipatzen dira: bizitza, heriotza, maitasuna, aitatasuna, suizidioa... Izan ere, "Quitamiedos" antzezlanean planteatzen da pertsona bat hiltzen denetik haren gorpua hoztu eta giro-tenperatura hartzen duen arte topaketa bat gertatzen dela hildakoaren eta haren aingeru guardakoaren artean. Kulunka Teatro-aren laugarren sormena da hau. Konpainia 2010ean sortu zuten



Garbiñe Insausti eta Jose Dault-en eskutik. Harrezgero 30 herrialdetan baino gehiagotan egin du lan konpainiak eta hainbat sari eta izendapen jaso ditu. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Primeran aritu ziren sukaldaritza osasungarrian trebatzeko saioan

Pozarren ibili ziren martitzenean Portaleko sukaldetan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako "Tupper osasungarriak" ikastarora joandako guztiak. Mireia Alberdi nutrizionista bergararrak tailer praktikoa eman zion bildutako taldeari eta, besteak beste, aste osorako tupperrak modu errazean eta osasungarrian nola prestatu eta antolatu erakutsi zien parte-hartzaileei.



### “Noche Sabinera” gaur ERMUKO Antzokian

Gaur gauean "Noche Sabinera" kontzertua hartuko du Ermuko antzokiak, Joaquin Sabinaren egiazko bandaren eskutik. Sabinak atsedean hartu zuenean, bere ohiko musikariek eta disko batzuen ekoizleek bira egin zuten "Noche Sabinera" izeneko ikuskizunarekin. Show handi hori 2006. urtean sortu zen eta Espainia osoan eta Latinoamerikan zehar bidaiatu du urteotan. Kontzertuak bi zati ditu, eta bi ordu irauten du, gutxi gorabehera. Lehen zatian taldeak Sabinaren kantarik ezagunenaren errepasoa egiten du; bigarrenean entzuleak agertokira igo daitezke, "egun batez Sabina" izateko. Sarrerak 12 euro balio du, eta 22:15ean hasiko da.



### Beste hainbat kontzertu inguruan gaur gauerako

Gaur, esaterako, Neguko Kontzertuen egitarauaren barruan, Unidad Alavesa, Azken Sustraiak eta DJVTR izango dira Debako gaztetxean, 22:00etatik aurrera. Ordu bete geroago hasiko da, Itziariko Burugorri ostatuan, Kike Tormentaren kontzertua. eta ordu berean, hau da, 23:00etan, Bilau taldeak Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan joko du, Sinuosek antolatutako ekitaldian.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

### hildakoak

- **Fermin Guerra Martin.** 75 urte. 2020-I-22.
- **Carmen Llanos Luque.** 83 urte. 2020-I-23.
- **Manuel Telleria Mintegi.** 83 urte. 2020-I-24.
- **Enrique Eguren Larrañaga.** 91 urte. 2020-I-24.
- **Iñaki Etxaniz Zabaleta.** 74 urte. 2020-I-24.
- **Leopoldo Chamorro Jañez.** 81 urte. 2020-I-25.
- **Luis M<sup>a</sup> Zendoia Elorza.** 95 urte. 2020-I-25.
- **Juan Luis Unanue Oiarzabal.** 80 urte. 2020-I-28.
- **Juana Diaz Alonso.** 88 urte. 2020-I-28.

### jaiotakoak

- **Danel Aranzabal Hernandez.** 2020-I-21.
- **Aratz Hermosa Juaristi.** 2020-I-25.

### farmaziak

- Barixakua 31**  
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Zapatua 1**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 2**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 3**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 4**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Eguaztena 5**  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostotarren, 10)
- Eguena 6**  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 7**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2020AN-  
**Barandela** (Z. Agirre, 4)

### telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

### SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

8	2	6	5	4	9	1	7	3
7	3	9	8	1	6	2	4	5
4	5	1	2	7	3	9	6	8
2	9	8	7	5	1	6	3	4
5	6	4	3	9	2	8	1	7
3	1	7	4	6	8	5	9	2
6	7	3	9	2	5	4	8	1
9	4	5	1	8	7	3	2	6
1	8	2	6	3	4	7	5	9

3	1			7				
2	8							6
				2		9		
	3			6	2			4
7			8		1			2
6			4	7			8	
		4		3				
1							5	3
			7				2	9

## Barixakua 31

### KALEJIRA

**19:30.** Eibarko Kantuzaleak taldearen kalejira. Untzagatik abiatuta.

### ANTZERKIA

**20:30.** "Quitamiedos" (Kulunka Teatro). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.



## Zapatua 1

### 43. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**10:00/14:00.** Sarreren alde zurreko salmenta. Coliseoan.

### IKASTAROA

**11:00.** San Blas ikastaroa, Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 & 16:30/20:30.** 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

## Domeka 2

### 43. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**10:00/14:00.** Sarreren alde zurreko salmenta. Coliseoan.

### SAN BLAS MEZA

**11:00.** Kandelak, sanblasak eta beste produktuak bedeinatzeko meza. Azitaingo elizan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45.** Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 3

### 43. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**10:00/14:00.** Sarreren alde zurreko salmenta. Coliseoan.

### ELKARRETARATZEA

**12:00.** Jubilatu eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

### LEHIAKETA

**13:00.** Sanblas lehiaketa. Parte-hartzaile bakoitzak sanblas bana eraman behar du zentroko bulegora. Untzagako jubilatutuean.

### DASTAKETA

**18:00.** Sanblasoko opilen dastaketa (norberak eramandakoak), txokolatearekin (Arrate Kultur Elkartearekin ipiniko dute). Topalekuan.

## Martitzena 4

### IKASTEN

**10:00.** "Genetikako aurrerapenen oraina, etorkizuna eta ondorioak" hitzaldia, Juan Canalesen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

### MINTZODROMOA

**10:30.** Minbiziaren kontrako egunaren harira, AECC-k antolatutako mintzodromoa: "Minbiziari buruz mintza dezagun". Portalean.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### SANTA AGEDA KALEJIRA

**17:00.** Santa Ageda kalejira Juan Bautista Gisasola musika eskolako ikasle eta irakasleen eskutik. Portaletik hasita.

### SANTAESKEA

**17:00.** Entsegua (...eta kitto!-n). **17:30.** Santaeskea, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin eta Eibarko Kantuzaleak taldearekin. Amaieran mokadu txikia. Urkizu inguruan.

### SANTA AGEDA

**18:00.** Kaleetan Kantuz taldearen Santa Ageda kalejira. Urkizutik hasita.

### HARIXA EMOTEN

**19:00.** Idazlearekin Harixa Emoten: Lucia Baskaranen "Gorputz madarikatuak". Portalean (1. batzartokian).

### HITZALDIA

**19:30.** "Beneficios de la practica del yoga". Hizlaria: Manuel Paz / Madhava (Yoga Maisua eta Sanatana Dharma Eskolaren sortzailea). Portalean.

### SANTAESKEA

**20:00.** Sostoa abesbatzaren Santa Ageda kalejira (Kultu, Ibarburutze, Urkizu). Koskor taberna aldameneko eskaileretatik abiatuta.

## Eguaztena 5

### IKASTEN

**09:09.** Ibilaldia: Errekalde-Aginaga- Usurbil. Bazkaria sagardotegian. Trenaren irteera ordua, Ardantzan (09:11ean Estaziñotik).

### BILERA IREKIA

**18:00.** Ipuruko merkatu plazaren erabilerak zehazteko parte-hartze prozesua. Ipuruko merkatu plazan.



### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 6

### IKASTEN

**10:00.** "Suizidioa, erlijioa eta eliza katolikoa" hitzaldia, Joxe Arregiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

### IKASENPRESA AZOKA

**10:00/13:00.** IX. Ikaspenpresa Azoka. Untzagan.

### KALEETAN KANTUZ

**18:00.** Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatutuean. **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Erakusketak

### Otsailaren 9ra arte:

– "Calibre 16" T.A.C.O. Mexiko Arte Garaikide Tailerretako artisten kolektiboa (**Portalea**)



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NAHIA, zure bigarren urtebetetzian. Patxo pilla bat etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, martitzenian 9 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, ANDER!! Eguaztenian 12 urte egin zenduaz-en-eta!! Ondo pasa gaur, bixar eta beti!! Patxo bat etxekuen partez.



Zorionak, UXUE!!, atzo gure printzesak 5 urte bete zittuan-eta. Musu pilla bat famelixaren eta, batez be, lbaitxoren partez!!



Zorionak, ALBA, atzo 11 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, MARKEL, gure txikixak 2 urtetxo egin dittu-eta. Patxo haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL!!!, martitzenian 15 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, ARRATE! Asko maite zaitugu. Gozatu zure eguna eta etorriko diran beste guztiak.



Zorionak, JAKES!!! Gaur urtia betetzen dozuz-eta!!! Asko maite zaitugu!! Ekhi, Paule eta famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri gure artera, ARATZ, eta zorionak amatxo eta aiatxo berrixerri. Pozez zorutzen gagoz. Famelixakuon partez.



Zorionak, LANDER! Oso ondo ospatu zure eguna, lagun eta famelixaren artian!

## San Blas

Otsailaren 3ko egitaraua Eibarko elizetan:

- 08:30: Karmengo Amaren elizan (Karmelitik)
- 10:30: San Jose Obrero elizan (Urki)
- 11:00: Karmengo Amaren elizan (Karmelitik) San Agustin elizan San Andres parrokian San Pio X.a elizan
- 12:00: El Salvador elizan (Amaña)
- 19:00: Karmengo Amaren elizan (Karmelitik)

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

1ean: 19,45, 22:30

2an: 20:00

3an: 20:30

"Jojo Rabbit"

Zuzendaria: Talka Waititi



(2 ARETOAN)

1ean: 17:00, 19,45, 22:30

2an: 17:00, 20:00

3an: 20:30

"Underwater"

Zuzendaria: William Eubank



(ANTZOKIAN)

1ean: 17:00<sup>(1)</sup>, 19,45, 22:30

2an: 17:00<sup>(1 Aretoan)</sup>, 20:00

3an: 20:30

"Judy"

Zuzendaria: Rupert Goold



(ANTZOKIAN)

1ean: 17:00

2an: 17:00

"Bayala. Una aventura mágica"

Zuzendaria: Aina jarvine



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Ipuruan. 2 logela, egongela, sukalde eta komun handiak, ganbara eta despentsa. 72 m<sup>2</sup>. Argitsua. 90.000 euro. Tel. 677-592504.
- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komuna. 85 m<sup>2</sup>. Berogailuarekin. Tel. 615-781231.
- Etxebizitza salgai Legarre-Gainen. Egoera eta prezio interesgarrian. Tel. 622-755365.

### 1.2. Errentan

- Neska batek 2 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 662-012834.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala saltzen da Eibarko erdialdean. 100 m<sup>2</sup>. Akademia edo fisioterapia-kontsultarako egokia. Tel. 606-065518.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Urkizuko dorrearen azpian. Tel. 679-284155.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 602-384472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-724060.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-529198.
- Emakumea eskaintzen da umeak eskolara eramateko. Tel. 649-025614.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-188264.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 612-548108.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 602-313634.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 697-285731.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 625-780365.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-992094.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordugegi malgua. Esperientziarekin. Tel. 623-319422.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-565961.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 602-133720. Elvira.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. 7 urteko esperientzia. Ziurtagiria eta erreferentziak. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordugegi malgua. Tel. 631-483249.
- Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 603-645611.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 643-978069.
- Eibarko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 680-121262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Terapeuta okupazionala eskaintzen da etxez-etxe bere beharra dutenen bizitzakalitate hobetzeko. Adin guztiarako. Tel. 686-321414.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-159971.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-874525.
- Mutila eskaintzen da saltzaile, harrera eta administrazio lanak egiteko. Ingeles eta frantses ezagutzarekin. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-076427.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta pintore moduan. Tel. 643-929576.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 643-398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, soziedadek...). Tel. 674-713262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 657-209119.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 631-389567.
- Emakumea eskaintzen da pisuak, lokalak edo tailerrak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-035976.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-009215.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Esperientzia. Tel. 631-768803.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-439959.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 632-423521.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-587617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordugegi malgua. Tel. 602-049781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-501003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordugegi malgua. Tel. 689-003537.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendari moduan. Administrazio-ikasketak eta esperientzia. Tel. 675-847035.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 605-598999.
- Gizon arduratsua eskaintzen da baserriko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 697-666992.

## 4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da asteburuetan jantze bateko jangelan zerbitzatzeko. Esperientziarekin. Tel. 659-539861.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Bidali curriculuma helbide honetara: tkteibar@gmail.com
- Emakume interna behar da etxeko lanak egiteko eta nagusia zaintzeko. Berehala hasteko. Ahal bada, ikastaro edo ziurtagiriarekin. Tel. 656-758793. Deitu 19:00etatik aurrera.
- Dentista eta hagineterako higienista behar dira. Bidali curriculuma helbide honetara: clinicadentalgestioncv@hotmail.com
- Abentura jardueretarako (paintball) monitorea behar dira asteburuetarako. Euskara jakitea beharrezkoa da eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Tel. 660-450245. Ainhoa.
- Ileapaintzailea behar da asteburuetan Elgoibarko ileapaindegi baterako. Tel. 943-246225.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Iphone 65 16Gb Gold salgai. Fundak eta pantaila berriak. 180 euro, negoziagarriak. Tel. 695-730077.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

# Eibarko erdigune berria



- Atikoak terrazekin
- Balio anitzeko gela sukaldearekin
- Gimnasioa
- Sukalde hornituak

**ERREBAL PROIEKTUAREN ONDOAN**

**Neinor Store:** Bidebarrieta, 6 - Eibar

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](https://neinorhomes.com)**

# Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO  
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Urtarrilaren 27tik  
Otsailaren 7ra



EIBAR BHI  
ISASI, 37

943 89 92 21  
DBH 1 eta 2



EIBAR BHI  
JARDINETA, 3

943 89 92 62  
DBH 3, 4 + Batxilergoak



AMAÑA

688 68 72 89



ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

2020-2021 ikasturtea

Zatoz gurea!  
Ikastera,  
Jolastera, hazterera...

Aurrematrikula / 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

ONLINE AURREMATRIKULA / [www.euskadi.eus/hezkuntza](http://www.euskadi.eus/hezkuntza)

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



SAN ANDRES

943 20 79 95



BAIKARA

943 12 17 78